

**Ziordiko udal
eraikinak frontoiko
teilatuan sortutako
elektrizitatearekin
hornituko dira** / 9

**Lehen sektoreko
produktuen
merkaturatze
laburreko zirkuituen
legea aurkeztu dute** / 6

**Energia komunitateak
sustatuko ditu
Eraldaketa
Komunitarioko
Bulego berriak** / 8

**Txirrindularitzan,
pala, enduroan eta
futbolean...
sakandarrak
txapeldun handiak** / 15-18



**Etxepare Saria
banatu dute:
'Mamuki'
"beldurrezko"
albumak irabazi du** / 21

SINADURAK



JAVIER
CASTEG
BARANDIARAN / 4



SAKANAKO
GIZARTE
ZERBITZUAK / 4



ANNE
AZKONA
UNANUA / 21



Festazaleak eskutik

Aukeran festak: Urritzola, Arruazu, Arbizu, Unanu, Lizarragabengoa, Urdiain eta Altsasu / 10-11/24

"Paseo bizi bat ematea nahikoa izan daiteke aktibo izateko"

OLAIA EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA DOKTOREGAIA

Jarduera fisikoa eta kirolan doktoretza tesia egiten ari da, eta emakume gazte gipuzkoarren laurdena inaktiboa dela ondorioztatu du argitaratutako artikulu batean

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Txikitatik jarduera fisikoa eta kirola egin izan du Olaia Eizagirre Sagastibeltza etxarriarrak. Futbolearen hasi zen, baina lesio batengatik utzi behar izan zuen, eta gaur egun palan aritzen da. "Pribilegiatua" dela esan du, jarduera fisikoa eta kirola egitea "betidanik" gustatu izan zaiolako. EHUko Jarduera Fisikoa eta Kirolean doktoregaia da, doktoretza tesia egiten ari da, eta GIKAFIT taldearekin batera argitaratutako ikerketa artikulu baten arabera, Gipuzkoako emakume gazteen laurdena fisikoki inaktiboa dela ondorioztatu dute. **Zein izan zen ikerketaren abiapuntua?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean aritu nahi zuen, eta bere interesetako bat zen Gipuzkoako emakumeek dituzten jarduera fisiko eta kirol azturak, arrazoiak eta oztopoak ezagutzeko.

Ikerketarako 18 eta 29 urte bitarteko multzoa hartu duzue. Zergatik? Adin tarte horretan sartzen direnak emakume gaztetzat hartzen

dira. Hainbat ikerketak diote nerabezaroan orokorrean jarduera fisiko eta kirol praktika jaisten doazela, eta gero helduarorako trantsizioan ere jaitsiera handia ematen dela. Aldaketa etapa bat da, hainbat aldaketa ematen dira: unibertsitatean hastea, bizitokiz aldatzea, bikote harremanak hastea edo aldatzea, lagun taldeetan aldaketak ematea... Aldaketa horiek eragin dezakete jarduera fisikoa eta kirola gutxitzea edo uztea erabakitzea.

Eta haurtzaroan nolakoa da aktibitatea?

Ez da ikerketa gaiaren talde zehatza, baina ikusi dugunaren arabera, orokorrean haurtzaroan neska eta mutilen artean antzekotasun handien ematen den etapa da. Nahiz eta nesken artean parte hartzea gutxiago izan. Hori bizitza etapa guztietan ematen da. Baina egia da haurtzaroan gehien egiten den etapa dela. Gero adinak aurrera egiten duen neurrian jaisten doa.

Nolakoa da ikerketa bat egitea?

Lehenengo pausoa izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiak iker-

keta egiteko eskatu ziola EHUri. Orduan, jakin behar genuen gutxi gorabehera zer azturak dituzten emakumeek eta nolakoak diren. Lehenengo ikerketak bilatu genituen, zer ikertu den eta nola ikertu den. Galdetegi bidez ikertu bada, zer galdetegi erabili dira eta zer irizpideekin. Horren arabera erabaki genuen nazioartean erabiltzen den galdetegi bat erabiltzea. Horrek ere aukera eman digu datuak alderatzeko; Gipuzkoako emakumeen datuak nazioartekoekin alderatzeko. Galdetegiak balidatu genuen eta gaztelaniara eta euskarara egokitu genuen. Fakultateko zenbait ikerlarik lagundu ziguten. Emakumeek bideratutako galdera batzuk gehitu genituen ere, amatasunarena, adibidez. Prozesu luze baten ondoren, osatu genuen. Osatu ondoren muestra txiki bat pasa genion. Beraiek *feed back*-a eman ziguten gutxi gorabehera esateko galdera hau ez dela ulertzen edo beste hau anbigua dela. Aldaketa batzuk egin ziren eta galdetegiak zabaldu genuen. Egia esan, ez genuen espero erantzuna: 4.000 erantzun jaso genituen.

Izugarri izan zen. Horrek ere konplexutasuna ematen digu, datu horiek kudeatu eta aztertu behar direlako. Emakume gazteen artikuluan agertzen da ikerketaren zati bat. Ikerketa desberdinak egin ditugu; adin tarte bakoitzean zer nolako joerak daude aztertu dugu.

Nola kontaktatu zenuten emakumeekin?

Irekia izan zen. Hasira batean emailez bidali genuen. Gipuzkoako Foru Aldundiak kontaktu batzuk bazituen, eta email bidez zabaldu genuen. Zabalkunde handiena Whatsapp bidez izan zen. Whatsappez eskatzen genuen 18 eta 65 urte bitarteko emakumei galdetegi erantzuteko edo, bestela, galdetegi zabalteko. Horrela zabaltzen joan zen. Horren ondoren talde eztabaidak egin genituen. Sakontzeko aukera ematen digute. Galdetegiak esaten dizute jarduera fisikoa edo kirola ez egiteko arrazoi nagusiak denbora falta, nekea eta pereza direla, baina ez dizute zergatik zehazten. Orduan, herri desberdinetara joan ginen eta emakume desberdinekin eztabaidak egin genituen.

Zenbat denbora aritu zarete lan honetan?

Ni tesiarekin 2020an hasi nintzen, eta garai horretan jarri zen ikerketa martxa; eta oraindik martxan dago. Datu pila bat ditugu aztertzeke.

Landa eremuaren eta hirigunearen artean ere desberdintasunak omen daude, ezta?

Bai. Landa eremuko emakumei dagokienez ikerketek esaten dutenarekin bat egiten dute datuek: hirigunetan bizi direnak jarduera fisiko eta kirol gehiago egiten dute landa eremuetan bizi direnek baino. Landa eremukoek oztopo gehiago izaten dituzte. Gipuzkoako kasua, gainera, be-

"DENBORA FALTA, NEKEA ETA PEREZA AIPATZEN DUTE; TXARRAK DIRELA PENTSATZEN DUTE"

rezia da; orografia oso aldapatsua da eta talde eztabaidatan esaten zuten etxetik atera eta aldapa handia badago, ezin dutela paseo bat ere lasai eman.

Zer hartzen da da jarduera fisikotzat eta kirolotzat? Zer esan nahi du inaktiboa izateak?

Guk hartu dugu OMSek, Osasun Munduko Erakundeak, esaten duena. Gutxienez astean 150 minutuz egitea, hau da, bi ordu eta erdiz intentsitate moderatuan jarduera fisikoa edo kirola egitea. Intentsitate moderatuan egitea da arnasa pixka bat estutzen zaizuenean. Intentsitate baxua izango litzateke paseo bat ematera joaten zarela eta lasai hitz egin dezakezunean. Intentsitate ertainekoa edo moderatua izango litzateke pixka bat gehiago kostatzen zaizunean arnasa hartzea, azeleratzen zaizula, eta intentsitate altukoak izango litzateke hitz egiteko zaila edo ezinezkoa denean.

Eta ikerketaren arabera, zergatik dira Gipuzkoako emakume gazteen laurdena inaktiboak?

Gehienbat galdetegietan aipatzen zuten denbora falta, nekea eta nagikeria. Horrez gain, bitxia izan zen lotsa eta konfiantza falta ere arrazoi nagusiak izaten direla, eta aldi berean elkarrizketetan nabaritu zen gorputz irudiarekin kontzeptu baxuak edo abilezia motorrarekin lotutako autokontzeptu baxuak; askok pentsatzen dute kirolean txarrak direla eta ez dutela jarduera fisikoa egiteko balio. Batzuk txikitatik barneratuta dute ideia hori, orduan, txikitatik baztertu dute askok, heziketa fisikoan egiten izan dituzten esperientzia txarrentatik.

Nola egin dakioke aurre inaktibitateari?

Hainbat teoria eta eredu daude pertsonek jarduera fisikoko jokabideak ulertzeko; zergatik egiten duzun eta zergatik ez duzun egiten. Guk erabiltzen dugun teoretiko bat da teoria sozioekologikoak. Horrek funtsean esaten du norberaren edo pertsonek jarduera fisikoko jokabideak multifaktorialak



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Olaia Eizagirre Sagastibeltza EHuko Jarduera fisikoa eta kirolean doktore gaia.

direla eta multifaktore horien barruan daude pertsonalak, norberarenak, hau da, osasun egoera, adina, bizilekua eta abar. Gero egongo lirateke interperstonalak, inguruan dugun egoera soziala; familia, lagunak eta lankideak ere izan daitezke. Azkenik, testuingurukoak daude, orografia, kirol instalakuntzak edo kirol politikak. Orduan, honek konplexutasuna gehitzen dio pertsonen inaktibitateari aurre egiteari. Horren harira, guretako garrantzitsua da azpimarratzea kirol politika garatu behar dituztenei edo pertsonen ez dugula erori behar ardura pertsonalean, ez da norberaren ardura soilik.

Espero zenituzten jasotako ondorioak edo sorpresa izan zen?

Orokorrean esango nuke datu gehien-gehienekin espero genituen emaitzak izan direla. Baina adibidez, buruz ari naiz, Gipuzkoan orokorrean hiru adin tartean banatuta, 18 eta 30, 30 eta 45 eta 45 eta 65, erdiko taldean gorakada bat ematen da. Gazteek jarduera fisiko gutxiago egiten dute, erdiko adin tartean gora egiten du aktibitatea, eta azken adin tartean behera. Hori nahiko deigarria izan zen.

Mundu mailako ikerketekin alderatuta, nolako emaitzak dira Gipuzkoakoak?

Orokorrean datu gehienak nazioarteko oso antzekoak di-

rela esango nuke, baina landa eremuetan zehaztuta egia da nazioarteko landa eremuak nahiko desberdinak direla. Adibidez, Australiako datuekin alderatzen baditugu, Australiako landa eremua guztiz desberdina da. Orduan, oso zaila egiten zaigu guztiz alderatzea. Australiako landa eremuak oso remotoak dira, hiriguneetatik oso urrun daude, eta Gipuzkoan, aldiz, dena pilotuta dago. Landa eremu asko daude, herri asko, baina nahiko konektatuta daude. Horrek ere erraztasuna eman dezake; nahiko homogeenak dira eta horrek ikertzen laguntzen digu. Baita Nafarroan bertan ere.

Ikerketa Nafarroara ekartzea pentsatu duzue?

Nafarra izanda, niri gustatuko litzaidake. Baita Sakanan egitea ere. Gipuzkoako landa eremuak ikertzen ari naizenez, sakandarra izanda eta Sakana landa eremua denez, asko interesatzen zait. Gainera, Sakanak orografia menditsua eta malkartsua dauka. Baina kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritzean badaude kontratu antzeko batzuk eta guri ez bazaigu etortzen Nafarroako Gobernuaren proposamen bat zaila da. Interesgarria da eta egin daiteke, baina elkarlan bat badago asko errazten du. Ez dut alde batera uzten; gustatuko litzaidake.

Ikerketarik egin gabe, modu informalean, nola ikusten duzu egoera?

Egia esan, Sakanan paseorako leku dezente daudela esango nuke. Herri bakoitzean ez dakit, baina askotan paseorako aukerak daude. Agian jarduera fisikoa edo kirola esaten dugunean ez zaigu hori burura etortzen, baina paseo bat bizi-bizi ematea nahiko izan daiteke aktibo horretan sartzeko. Astean hiru paseo lagunekin eta azkar-azkar ematea izan daiteke nahikoa. Esaterako, padela duela zenbait urte modan dago eta duela gutxi iritsi zen Sakanara. Gazteendako eta helduendako, adin guztietarako eta abilitate maila guztiendako egokia da. Haurrendako kirol eskaintza izugarria dago, baina egia da helduendako eta emakumeendako agian ez dagoela hainbeste. Gimnasioa, kiroldegiko eskaintza eta hortik aurrera zure esku dago. Agian ez baduzu egiten, inaktiboa bazara, zailagoa egingo zaizu, esaterako, bizikleta talde batean edo atletismoan sartzeko. Abiapunturik ez baduzu laguntza pixka bat behar duzu. **Artikulan emakumeen taldeak edo talde mistoak nahiago zuten apatzen zen ere.**

Talde eztabaidatan esaten zuten ez zitzaizela inporta gizonen taldetan aritzea, baina ez zait inporta hori esaten zutenak dagoeneko kirol bat baino gehiago egina zutenak ziren; mundu

horren barruan zeudenak. Kanpoan bazaude, ez dakizu nondik hasi, txikitatik esan badizkizute komentarioak eta zuk sinistu baduzu ez duzula balio... Agian ez da erakargarria gimnasio batera joatea. Gainera, normalean gimnasio batean pentsatzen baduzu gizona ez bezala irudikatzen ditugu, ez dakizu makinak nola erabiltzen diren, zer egiten dut hemen esaten diozu zeure buruari, barre egingo didate, lotsa ematen dit... Mundu berria da eta gainera gizona ez bezala. Ez da erakargarria.

Eta tradizioz emakumezkoen kirolak kontsideratzen direnak?

Orokorrean kirol horietan parte hartzen duten emakume gehienek: aerobic, zumba, euskal dantzak ere esan ziguten askok. Baina

"EZ DA NORBERAREN ARDURA SOILIK; KIROL POLITIKAK ETA INSTALAKUNTZAK FAKTORE DIRA"

"GUSTATUKO LITZAIDAKE IKERKETA NAFARROAN ETA SAKANAN EGITEA; ELKARLANA BEHAR DA"

egia da zerotik hasi behar denak zailtasun hori izaten jarraituko duela; nahiz eta tradizio feminenoko munduak izan, aurretik ez baduzu egin zuretzako mundu berri bat izaten jarraituko du. Nahiz eta emakumeekin egon, zaila izango da. Adibidez, nik txikitik dantza egin nuen, baina orain sartu behar banaiz niretako leku inseguru bat izango zen, ez dut ezagutzen, ez daukat eritimoarekin konfiantzarik, talde berri batean sartzeko izango zen, eta dagoeneko denek dakite dantza egiten eta ni zerotik hasi behar naiz. Oztopoak badira. Horregatik garrantzitsua da abilezia maila antzeko dutenekin praktikatzea. Esaten badidate ni bezalako abilezia duten bost daudela, erosoago sentituko nintzateke; ez naiz lekuz kanpo sentituko.

Zergatik sartu zinen doktoretzaren abentura horretan?

Nahiko abentura da, bai. Magisteritzako gradua egin nuen, Iruñean, eta gero Jarduera fisikoa eta kirola masterra egitera joan nintzen Gasteizera. Gradu Amaierako Lanean gutxi gora behera izaten duzu ikerketa delakoarekin gerturapen bat, eta ikusi nuen gustatu zitzaizkidan ikerketak bilatzea, zer ikertu den ikustea eta datuak eduki eta horiek aztertea. Orduan Jarduera fisikoa eta kirolaren ikerketara bideratutako masterra egitea erabaki nuen, eta gero ikusiko nuen. Irakasgaiak gustatu zitzaizkidan eta Master Amaierako Lana ikerketa bat egitea izaten da. Bi tutoreekin egin nuen, Uxue Fernandez Lasa eta Oidui Usabiaga Arruabarrena irakasleekin, eta MAL aurkeztu ondoren esan zidaten ea tesia egin nahi nuen beraiekin. Niretako izugarritzako poza izan zen beraiekin eskaintzea, eta baietz esan nuen. Doktoretza ikasle bezala hasten zara, gradu bat egitea bezala da, eta finantzetariki gabe hasi nintzen. Beka eskatu nuen, baina ez zidaten eman. Normalean publikatutako artikuluak, elkarlanak, entitate batekin proiektu handi bat egitea eta abar puntuatzen dute, eta lehenengo urtean oso zaila izaten da. Orduan, ikasle bezala jarraitu nuen nire buru horretan ikusten nuelako eta ikusten nuelako beste urte bat gehiago jarrai nezakeela, eta beka lortu nuen. Orain ikerlari predoktorala naiz EHU-n.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Adostasuna

Martxoaren akaberan Jagobak iragarri zuen ez zuela jarraituko bere azken sei urteotan entrenatzaile izandako futbol taldean.

Ezin da esan ezustean izan zenik, baina inork gutxi aditu nahi zuen berria izan zen.

Hasiera batean, iritzi aldak ezakeelakoan, geratzeko eskariak oihu ozen bihurtu ziren, eta Jagoba non zegoen, han eskaria. Handik gutxira, erabakiak atzera bueltarik ez zuela onartuta, eskaria bere horretan mantendu zen, kasu honetan, esker ona adierazteko izanik.

Gero, bere lana eta izaera goraiatzeko mezuak ugaritu egin ziren batere ohikoa ez den maila batean.

Esan daiteke erabateko adostasuna lortu duela bere irudiaren inguruan.

Arazoi asko izan daitezke horretarako. Kirol aldetik, bere lorpenak ukaezinak dira, eta ez ditut hemen zerrendatuko Zaleekin bat egitea lortu du jokalariek guztien gainetik, taldearen izar bihurtzeraino. Azken hau futbol profesionalean ia mirari bat da.

Baina niretako bere jardunak balio erantsi bat izan du. Euskal kultura, batez ere euskara eta bertsoak, naturaltasun osoz, plazaren erdigunean kokatu du. Non eta Osasun eta Nafarroan, non batzuek, euskara Nafarroa konkistatzeko tresna besterik ez duten ikusi nahi, eta bertsoak existitzen ziren ere ez

zekiten. Egoera horretan guztiek Jagobak zer esaten zuen jakitea desiratu izan dute; eta, bide batez, euskaldunoi, jai giroan eta ospakizunetan, jendarekin komunikatzeko eta mezuak helarazteko balio dutela gogora ekarri digu. Eta berak lortu du, eta inor gutxi ausartu da ozenki kritikatzera.

Nik uste, alde horretatik, kanpaina asko baina eraginkorragoa izan dela. Bejondeiola.

Orain badoa eta espero dezagun berak ereindakoak fruituak eman ditzala.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.us

HARA ZER DIEN

Etxebizitza partekatua

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Nafarroako Gobernuak Etxekide kooperatiba aukeratu berri du "cohousing" edo etxebizitza partekatuen eredu oinarri daukan proiektua aurrera eramateko.

Aurreikuspenen arabera, 2037. urtean Nafarroako 70.000 pertsonak 80 urte baino gehiago izango dituzte, eta hori dela-eta gobernuak etxebizitza partekatuen eredu berriak ezartzeko beharra ikusten du, ohiko zahar egoitzen alternatiba gisa. Bertan banakako espazioak eta talderakoak egongo lirarteke.

Eredu komunitario bat da, autokudeatuta, non pertsona guztiek hartzen dituzten erabakiak, ardurak eta lanak, eta, bide batez, bakoitzaren intimitatea eta autonomia bermatzen dira.

Lizitaziora bi kooperatiba aurkeztu ziren, eta Etxekide

deitzen denak irabazi zuen. Beraz, beraiek izango dira proiektuaz arduratuko direnak.

Etxekide kooperatibaren proposamenak hainbat irizpide ezartzen ditu lanerako beharko diren pertsonak kontratatzeko. Kontuan hartuko dira eta lehentasuna izango dute elbarritasun egoeran daudenak, gizartetik baztertzeko arriskuan daudenak edo biolentzia matxistaren biktimak direnak.

Proiektuaren ardatzak dira banakako etxebizitzak izatea, eta espazioaren %38 amankomuneko lekua izatea eta bertan sukaldea, jangela, garbitokia, liburutegia, lorategia, zaintza soziosanitariorako gela. Amankomuneko espazio horien kudeaketa bizikideen ardura izango da, eredu parte hartzaile bati jarraituz.

Horretarako ezinbestekoak dira estatutuak eta baita barne araudi bat, denen artean adostuak. Bertan bizikideen inplikazioa arautuko da, hau da, ekintza kolaboratiboak zein diren hautatuko da, eta baita etxebizitza sozial hauetan bakoitzak zein konpromisoa hartu behar duen ere. Etxebizitza bakoitza 52 m²-koa izango da eta sartzeko baldintzen artean urteko diru sarrerak 18.500 baino gehiagokoak izatea da. Hasierako ekarpena 30.691 eurokoa izango da, eta hilabeteko kuota 700 euro ingurukoa.

Etxebizitza izateko eredu berriak dira, ez espekulatiboak. Nahiz eta momentuz horrelako gutxi dauden, Nafarroako Gobernuaren asmoa ekimen hauek bultzatzea da.



OBJEKTIBOTIK

Biharamun traketsa

San Juan gaua beti izaten da berezia, suak, afariak eta barreak izaten dira protagonista. Aurten euriak busti ditu gure herrietako lurrak eta batzuek buruari eragin zioten kalean afaldu ahal izateko, baina dena aurkitu zuten moduan utzi ordez, **Guaixekide** batek bidalitako argazkian ikusten den moduan, asmatutako karpa hor utzi zuten, beste batzuek jasotzeko.



UTZITAKOIA

www.guaixe.us

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.us

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.us
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.us

Administratzailea:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.us

Zuzentzailea:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada:

3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.us

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.us
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.us

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.us
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.us
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.us

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



EKAINAK 28

LGTBI+

**HARROTASUNAREN
NAZIOARTEKO EGUNA**

Belén, 26 urte
***SAILKAEZINA**



ANIZTASUNEAN HARRO



Merkaturatzeko zirkuitu laburren aurkezpena

Gobernuak lehen sektoreko produktuen zuzeneko eta hurbileko salmenta ikustarazteko balioko duten zigilu berriak aurkeztu zituen Arruazun. Helburu bera duen 'Dastatu Sakana' marka dago. Sakanako Garapen Agentziak zer egin aztertuko du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nekazaritzako Elikagaiak Merkatutzeko Kanal Laburrei buruzko Foru Legeko neurrietako bat da nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategi bati lotutako produktuen zuzeneko eta hurbileko salmenta ikusaraztea. Horretarako, foru administrazioak bi zigilu sortu ditu. Horiekin bi helburu bete nahi ditu: produktuen jatorriari buruz kontsumitzaileak egiten duen eskaera gero eta handiagoari erantzutea du, eta zirkuitu laburren merkaturatzeari bulkada ematea.

Produktuen zuzeneko salmentan da sortutakoa ekoizleak berak saltzen duenean. Haren logotipoa urdin kolorekoa da. Bestalde, hurbileko salmentan ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean bitartekari bakarra egoten da. Bitartekari hori izan daiteke denda, harategi, jatetxe, jantoki kolektibo edo landetxe bat. Hori koloreko irudi batek identifikatzen du hurbileko merkaturatze hori.

Identifikazio berri horiei esker, azken kontsumitzaileek produktuen jatorriari eta merkaturatze motari buruzko informazioa jaso dezake. Horretaz aparte, ekoizleek hainbat abantaila izango dituzte merkaturatze kanal laburren erregistroan izena ematen badute. Horrela, logotipoari eta garatzen ari den web orri berri bati esker gehiago ikusarazteaz eta sustatzeaz gain, bi salmenta kanal horiek bulkatzeko laguntzak izango dituzte eta merkaturatzeari buruzko prestakuntza jasoko dute. Bestalde, bai nekazaritza-ustiategiekin, bai inskribatutako establezimenduekin, Nafarroako Gobernuaren konpromisoa dute beren produktuak Turismoaren sustapen-ekin bidez merkaturatzea sustatzeko, edo Kanal Laburren Foru Legearekin lotutako gaietan solaskide izateko.



Hainbat sakandar elkartu ziren legearen aurkezpen saioan. SGA

"ERREGISTROAN IZENA EMATEN DUTEN EKOIZLEEK ZENBAIT ABANTAILA IZANEN DUTE"

Ibarra

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta eta Belardik, Sakanako ekoizleen elkarteak, ibarrean ekoizpen arduratsua eta tokiko kontsumo eta elikadura bulkatzeko Dastatu Sakana marka sortu zuten 2020ko udaberrian. SGAKo elikadura teknikari Nerea Viana Zugadik azaldu digunez, "gure marka sortu genuenean Foru Legea ez zegoen. Orain merkaturatze bide laburrak arautu dituzte. Horretarako, Sakanako ereduari erreparatu dio gobernua".

Vianak azaldu duenez, Sakanako eta Nafarroako araudien artean aldeak daude. Batetik, Dastatu Sakana markapean soilik lehen sektoreko profesionalek parte hartu dezakete. Bestetik, abeltzaintza estentsiboan lan egiten dutenak sar daitezke markan. Ekologikoan edo agroeko-

logiako teknikak erabiltzen dituzten nekazariak dute tokia ibarreko izendapenean. Eta, azkenik, ustiategiaren tamainaren inguruko aldeak daude. Sakanakoan lau nekazaritzako lan unitate onartzen dira gehienez. Nafarroakoan bost, hamar elkarteak badira.

Teknikariak azaldu duenez, "marko berriarekin Dastatu Sakana markarekin zer egin hausnartu beharko dugu. Helburua tokiko aliantzak sustatzea da". Legea Sakanan ezagutarazi nahi zutelako haren aurkezpena antolatu zuten Arruazun asteazkenean. Hartara ekoizlea, dendariak eta ostalaritzako langileak gonbidatu zituzten. "Batetik ekoizleak eta haiek ekoizten dituztenak identifikatu nahi ditugu. Bestetik, ahalik eta denda, harategi eta jatetxe gehien batzea nahi dugu". Vianak nabarmendu duenez, "merkaturatze kanal laburren erregistroan izena ematen duten ekoizleek zenbait abantaila izanen dute: dirulaguntzetarako puntuak jasoko dituzte. Arlo fitosanitarioan erraztasunak eta, azkenik, gobernuak tokiko produktu eta ekoizleen promozioa egingen du aurrerantzean".

Udalak etxe bat eta hiru lur sail enkante bidez saldu nahi ditu

Etxea San Pedro A taldean dago, etxeak eraikitzeko orubeak, berriz, Geltoki eta Santokristobarren kaleetan

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasuko Udalak bere jabetzako etxe bat eta hiru lur sail enkante bidez saldu nahi ditu. San Pedro A taldeko 14. zenbakikoa da salgai dagoen etxea, 90,94 m²-ko azalera du eta 82.496,93 euroko prezioa. Geltoki kalearen mendebaldeko muturrean dagoen partzelak 205,33 m²-ko azalera familia bakarreko etxebizitza eraiki daiteke, beheko solairua eta bi altuera gehienez. Udalak 70.072,39 euro eskatzen ditu. Kale berean 152,6 m²-ko azalera duen lursaila dago, eta etxebizitza mota bera eraikitzeko aukera du. Haren balioa 69.214,69 eurokoa da. Azkenik, Santokristobarren kalearen 7. zenbakian dagoen 202,27 m²-ko orubegatik udalak 84.848,22 euro eskatzen ditu. Elkarri atxikitako familia etxebakarra eraikitzeko aukera dago han, zehazki, behe solairua eta bi altuera izan ditzake. Eskaintzak aurkezteko epea garilaren 16an despidituko da.

Iritzi kontrajarriak udaletxean

Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "udala kontzientea da Altsasun etxebizitza eraikitzeko lurzorurik ez dagoela, ezta salmentan edo alokairuan dagoen etxebizitzarik ere". Alkateak azaldu duenez, "2002an Udal Hirigintza Plana onartu zenean, esaterako Lezalden eta Beikolarren hirigintza garapenak aurreikusitako ziren, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzeak. Baina horiekin lankidetzaren sistemen bidez gauzatzeko aurreikusitako zen. Irizpide orokor hori gaizki erabili zen plan horretan hirigintza sektore guztietan. Ondorioz, gaur egun Altsasuko Udalak ez du aurreikusten garapen horiek sistema horren bidez egitea, ekonomia karga guztiz neurrigabea baita sektore horietako jabeendako. 2002ko hirigintza planak akats politiko eta tekniko handiak ditu bere edukian", azpimarratu du.

Ollok nabarmendu duenez, "egungo biztanleria finkatzen saiatzeko, bere martxa saihestuz eta, aldi berean, bizilagun berriak erakartzen saiatzeko etxebizitza

funtsezko elementua da helburu hori lortzeko". Ildo horretan kokatu du Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoarekin egindako hitzarmena. "Etxebizitza hutsen jabeek etxebizitza horiek erakunde horrek kudeatzen duen alokairu poltsan sar ditzaten sustatzeko eta ahalbidetzeko, edo udal-partzela baten jabetza doan uztea, gehienez babes ofizialeko 42 etxebizitza alokairuan eraikitzeak. Gainera, neurri fiskalak hartu dira, jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko zerga; izan ere, zerga-bilketa helburu duen neurria izan beharrean, hutsik dauden etxebizitzak alokatu ahal izatea da helburua". Neurri horiekin batera, udal eraikin eta lur sailen enkantea dago. Olloren iritziz, "erabilera publikorik gabe eta epe ertain eta luzera izango dutela aurreikusitako gabe egonik, bizilagunen eskura jar daitezke, bertan beren etxebizitza ezarri ahal izateko eta, beraz, ez dezagun ahaztu gure herriaren etorkizunerako duten proiektua. Izan ere, ez du zentzurik Udalak lehen erabilerririk gabeko eta etengabe hondatutako etxebizitzak ziren eraikinak izatea, legez kanpo okupatuak izateko arrisku erantsiarekin, 2021ean saldu nahi den etxearekin gertatu zen bezala".

EH Bildutik gaztigatu dutenez, "Nasuvinsak eraikiko dituen alokairurako 21 etxebizitzak altsasuarren beharrak ez dituela asetzen". Bestalde, "etxebizitza eta lurzoru publikoa pribatizatzeak erabakia zuzentzeko" eskatu zuen. EH Bilduk proposatu zuen "udalaren etxebizitzak Nasuvinsaren birgaitze proiektuan sartzea eta alokairu publikoko poltsara sartzea". EH Bilduko kideek azaldu zuten, "proposamen hori egin dugu alkateak ez duelako alokairuko etxebizitza poltsa propioa sortu nahi".

INTERESA DUENAK UDAL IDAZKARITZAREKIN HARREMANETAN JAR DAITEKE

KULTUR

2024 ekainak 21 | irailak 28 | **UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA**

UZT

OSTIRALA
26
21.00

ETXARRI ARANATZ
Kale Nagusia (plaza)
THE TAVERNERS



IRA

OSTIRALA
6
21.00

ALTSASU
Foruen plaza
IBIL BEDI
Goldea



PROGRAMA
COMPLETO
CASTELLANO



EUSKARA
PROGRAMA
OSOA

"Hemen betidanik egon dena sustatzera gatoz"

UNAI JIMENEZ VILLANUEVA ERALDAKETA KOMUNITARIOKO BULEGOKO TEKNIKARIA Industria eta Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Departamentuak sustatuta, eta Sakanako Garapen Agentziaren laguntzaz, bulegoa aurkeztu zuten atzo

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Herrietan energia komunitateei buruzko lanketak egin nahi ditu bulegoko arduradunak.

Zer da Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa?

Guk haztegi deitzen diogu. Nafarroako Gobernuak sustatutako proiektua da, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren (IDAE) dirulaguntza jaso duena, eta Nasuvinsa garatzen ari da. Nafarroan halako sei haztegi jarri dira, haietako bat Sakanan. Guztiak koordinatzen dituen bulegoa ere badago. Haztegi horien bidez energia komunitateak sustatuko ditugu. Alde batetik, energia komunitatea sortu nahi duten talde motorei laguntza eskainiko diegu. Gainera, eratuta dauden energia komunitateei akonpainamendua eman nahi diegu. Bestetik, zabalakudean edota udalen artean energiaren eta energia trantsizioaren arloko kontzientzia hartzea landu nahi dugu.

Zer da energia komunitate bat?

Galdera ona. Askotan energia komunitatea instalazio fotovoltaiko batekin lotzen dugu. Ez dira gauza bera. Gure aldamean bizi direnekin egindako edozein energiari buruzko edozein lanketa litzateke energia



Aitor Larraza (Mank), Uxue Itoiz (Gobernua) eta Unai Jimenez aurkezpenean.

komunitate bat. Esaterako, aldamenarekin batera etxea berotzeko egurra erosten badut, hori energia komunitate bat da. Ez gatoz ezer berria asmatzera, baizik eta hemen betidanik egon dena sustatzera. Kontzeptu horren baitan gauza asko sartzen dira eta, beraz, kontzeptu irekia da, herritarren beharretara moldatzen dena.

Zertarako balio dute?

Energia sortzeko. Baina haien egitekoa da energia trantsizio honetan herritarrak ahalduntzea, jendea izan dadin haiek sortzen

duen eta sor dezaketen energiaren jabe.

Zer abantaila du nork bere energia sortu eta kontsumitzeak?

Askok ekonomikoak argiak dira: zuk sortzen duzuna ez duzu erosten eta, beraz, ez duzu ordaindu beharrik. Ekologiaren aldetik, 0 KM-ko energia kontsumitzea hobe da, errendimenduak askoz hobeak dira. Guri alde sozial hori sustatzea gustatzen zaigu, energia hitzaz aparte komunitate hitza ere baitu. Eta energiarena baino lehen komunitatea izan behar dugu. Horregatik, alde

sozial horren sustapena oso garrantzitsua da.

Adibiderik?

Gauza ugari egin daitezke. Ohikoena autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dira. Udaltxe edo eraikin publiko batean eguzki plakak jartzea eta handik gertu bizi direnekin energia hori kontsumitu ahal izatea. Susta daitezke kontzientzia hartze proiektuak eskoletan, herrietan. Biomazaren inguruko lanketa zabalago ere, herriaren bazoekin, komunalarekin, komunitatean landu den baliabidea izan da, eta halakoak energia komunitate baten baitan sar daitezke. Industriako energia komunitateei dagokienez, esaterako, energiaren merkaturatze kudeaketa egin daitezke.

Horretarako aukerak badaude?

Bai, asko gainera. Sortzen ari dira eta gehiago sortuko da. Kar-Kar-Kar energia komunitatea mugikortasunaren esparruan lan egiten dute, komunitatean partekatutako auto elektriko bat dute. Beste adibide bat da. Sakanako Garapen Agentziak parte hartze prozesua martxan jarri zuen eta ibar osorako lan egin dezakeen energia komunitatea lantzen aritu dira. Prozesua bukatuta, orain eraketa lanekin hasi dira. Oso proiektu interesgarria da, zabalagoa izanik oinarri sendoagoa baitu. Ideala udal guztiak sartzea litzateke. Badakigu batzuk sartuko direla. Herritarrak eta enpresa batzuk ere parte hartu dute, komunitate baten parte edozein izan baitaitezke. Mahai gainean oso proiektu interesgarriak daude, gehienak autokontsumorako, baina denerarik dago.

Zer pauso eman behar dira?

Energia baino lehen komunitatea dago. Komunitatea sortzeko

lehenengo pausoa parte hartze prozesu bat garatzea da. Gehienetan herrietan egiten da, baina ez du zergatik horrela izan beharrik. Sakanan ibar mailan egin da. Edozein herritar, entitate edo enpresak parte har dezake prozesuan eta komunitatea izan den horri forma ematen diote: dauden beharrak aztertu eta horiei erantzuteko zein proiektu susta daitezkeen aztertuko dute. Parte hartze prozesua despeditzean, energia komunitatea eratzen da, forma juridikoa ematen zaio. Behin eratuta dagoela, proiektua lantzen hasten gara. Komunitatearen parte diren bazkideendako zeintzuk diren proiektu interesgarriak aztertzen dugu. Eta proiektu horien teknika eta lege analisia egiten dugu. Eta martxan jartzen ditugu. Normalean proiektu batekin hasten da eta, beharren arabera, proiektu gehiago sar daitezke.

Prozesu horretan guztian laguntzen ariko zara?

Hori da ideia. Kanpotik, baina ondoan egonen naiz. Badakigu, normalean, herritarrendako energia gai arrotza dela, horregatik, gertutasuna transmititu nahi dugu. Horregatik sustatu dugu haztegi eredu hau. Edozein energiari buruzko galdera, zailantza edo dena delakoarekin guregana jo dezakete.

Non dago bulegoa?

Utzuganen, Sakanako Garapen Gunean, Arbizuko Utzubar industrialdean.

"PROIEKTU BATEKIN HASTEN DA. BEHARREN ARABERA, PROIEKTU GEHIAGO SAR DAITEZKE"

JARRAI GAITZAZU INSTAGRAMEN !!!

eta horrela gure produktuak ezagutuko dituzu, nola egiten dugun lan, gure dendak eta salmenta puntuak... Baina hainbat lehiaketetan ere parte hartuko duzu, promozioekin onurak izan, ideia handiak... eta askoz gehiago ere.




@panesamayaogiak

Amaya

OGITEGIA
LANTZA 1984

Eguzki plakak Ziordiko frontoiko teilatuan

Elektrizitatea sortzeko plakak jarriko dituzte. Argindarra udal eraikinetan eta argiteria publikoan kontsumituko da. Udalak, bestalde, galdetegia zabaldu eta jabeekin bilera egin ondoren, Nasuvinsarekin etxebizitzari buruzko bilera egingen du aurki

Alfredo Alvaro Igoa ZIORDIA

Ziordiko Udalak aurten 461.000 euroko aurrekontua izanen du. Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu duenez, udalaren inbertsio garrantzitsuetako bat plaka fotovoltaikoak jartzea izanen da. "Frontoiko teilatuaren hegoaldeko aldean halako ehun plaka jarriko ditugu. Han sortzen den argindarra udal eraikinak hornitzeko erabiliko dugu: frontoia, udaletxea, gimnasioa, igerilekua eta biltegia. Baita argiteria publikoa ere", esan du Irizarrek. Jakinarazi duenez, lanak 38.000 euro inguruko inbertsioa du eta ordaintzeko udalak %50eko dirulaguntza jaso du. Lan horiek Eseki enpresak egingen dituela jakinarazi du alkateak.

Bestalde, udaletxean igogailua jartzeko lanak garagarriaren erdialdean hasi zituzten Goikoe-txea eraikuntza enpresako langileek. Zeuden aukerak aztertu ondoren, udalak igogailua udaletxe barruan jartzea erabaki du. Ondorioz, "auzoa eta liburutegia zakarrago geldituko" direla esan du Irizarrek. Udal eraikinean irisgarritasuna bermatzeko lan horrek 220.054,32 euroko aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planean jasoa dagoenez, udalak dirulaguntza jasoko du. Igogailua udazkenerako erabilgarri izanen dela aurreratu du alkateak.

Nafarroako Gobernuak Tokiko Inbertsio Planetik kanpo utzi zuen Dona Maria eta Mirariko sareak eta zorua berritzeko lanak. "Gobernutik zioten lanak hasita zeudela eta, horregatik, ez zigutela dirulaguntzarik ematen. Frogatu behar izan dugu ez zeudela hasita, lanak fasea egiten ari garela. Gure argudioak onartu dituzte eta lana planeko erreserban dago orain", azaldu du alkateak. Beraz, udalen batzuek dirulaguntzari uko eginez gero, Ziordiko Udalak lana egiteko aukera izanen luke. Bestela, "hu-



Udaletxean igogailua jartzeko lanean ari dira.

MATERIA GABEKO MEMORIA JASOTZEKO SEI ELKARRIZKETA EGINEN DITUZTE. BIGARREN BILKETA DA

rrengo Toki Inbertsio Planera aurkeztuko dugu dirulaguntza eskaera", aurreratu du Irizarrek.

Etxebizitza

Ziordiko Udalaren agendan dagoen gaia da etxebizitzarena. "Duela urtebete gazteen artean galdetegia banatu genuen. Nasuvinsak eskatuta berriro egin dugu maiatzean". Alkateak azaldu duenez, "Horrekin batera, etxe hutsak eta eraikigarriak diren lursailen jabeak bilerara hots egin genituen. Informazio bilera izan zen. Azaldu genien Ziordia despopulazio arriskuan dagoen herrietako bat dela eta herriaren biztanleriaren garapena zein izanen den erakutsi genien. Udalak lursailik ez dela azaldu genien, baita etxebizitzak berritzeko dauden dirulaguntzen berri jaso zuten". Pauso horiek emanda, Irizarrek jaki-

narazi du Nasuvinsa enpresa publikoko ordezkariekin bilera egingen dutela orain. Udalak, bestalde, Nafarroako Gobernuari herria Lehentasunezko Birgaitze Eremu izendapena eskatu dio. Izendapena lortzeak eraikinak zaharberritzeko lanetarako askoz ere dirulaguntza gehiago eskuratzea dakar.

Dirulaguntza jasoz gero udalak igerilekuak egungo legedira egokitzeko lanak egin nahi lituzke. Bitartean zain da. Alkateak jakinarazi duenez, udaletxearen beheko solairuan dagoen udalaren taberna, Etxaleku, itxita dago. Hura kudeatzen interesa duenak udaletxean jasoko du informazioa. Bestalde, alkateak aitortu du Aralurrerako konponbiderik eman gabe jarraitzen duela gobernuak.

Azkenik, 2006an egin bezala, materia gabeko memoria jasotzeko elkarrizketak egingen dituzte Labrit Ondarea enpresako kideek. Oraingoan sei ziordiar elkarrizketatuko dituzte. "Ondoren nola zabaldu zehaztu gabe dugu oraindik", jakinarazi du alkateak. Aurreneko txandan esandakoan oinarrituta, *Ziordiko ilargia* dokumentala mustu zuten 2018an.

Nafarroako Gobernuak kale bihurtu duen errepideaz

Uharteko Udalari jakinarazi gabe bihurtu zuen. Udalak jabetza hartu aurretik hainbat neurri eskatuko dizkio

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL
Uharte Arakilgo Udalak heldu beharreko gaia da Geltoki eta Zerradoa kaleak. "Garai batean NA-2410 errepidea ziren. Nafarroako Gobernuak inongo hitzarmenik egin gabe zeharbidea zena kale bihurtu zuen", azaldu du Txomin Uharte Baleztena alkateak. Hau da, gobernuak errepidea udalaren esku utzi zuen ezer esan gabe; 770 metroko luzera duen errepide zatia da. "Ez dago espaloirik eta Zerradoa auzora joatea arriskutsua da oinezko eta txirrindulariendako,

autobusak eta kamioiak bertatik pasatzen baitira", azaldu du alkateak. Jakinarazi duenez "gaiari heldu eta Nafarroako Gobernuarekin horretaz hitz egin nahi dugu, hurrengo Toki Azpiegitura Planaren aurretik baino lehen hitz egin nahi dugu".

Bestalde, udalak basolanak egiteko pertsona bat kontratatu duela jakinarazi du. Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez beste pertsona bat kontratatuko du eta hirugarren kontratazioa egiterik izanen den aztertzen ari dira.



UZTAILAK 1-5

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Pentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 1 Adrian Martinez (txirrindularitza) eta Maialen Larraza (pilotaria)

Uztailak 2 Marcos Beraza Vitoria (Enducross)

Uztailak 3 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Uztailak 4 Olaia Eizagirre (emakumeen aktibitatearen inguruan)

Uztailak 5 Agenda berezia

FESTAK

ARBIZU

SAN JOANAK

EKAINAK 28 Ostirala

KINTOEN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria, Aldabideren eskutik.
13:00 Piperpropil tailerra, plazan.
17:30 Herri kirolak: Axiori omenaldia eta herritarren arteko apustua
18:45 Arbizuko erraldoiak, Haizeberri dultzaineroekin.
20:00 Aatea.
20:30 Arbizuko trikitilariak.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 DJ Txo.

EKAINAK 29 Larunbata

DENAK ITXAA EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria.
13:00 Herriko haur eta helduen dantzak.
14:30 Herri bazkaria.
16:00 Txiki lkearriya bakarlaria.
18:00 Txatxilipurdi haurrendako jolas kooperatiboak.
19:00 Herriko buruhandiak.
19:30 Manifestazioa: *Denak itxaa!*
20:00 Aatea.
20:00-22:00/00:00-03:00 Eztitan taldearekin erromeria.
22:00 Zezensuzkoa.

URRITZOLA FESTAK

EKAINAK 29 Larunbata

11:00 Dianak.
12:00 Txupinazoa txarangarekin, aperitiboa, rana, toka eta kale berriaren mustutzea eta kilikiak.
14:30 Herri bazkaria.
Bazkalostean, txaranga, bingo,



UTZITAKOA

BAKAIKU Maiatza igo zuten plazan bakaikuarrek.



OLATZAGUTIA Iturbedeinkatuaren inguruan elkartu ziren olaztiarrak.

gaztaren pisua eta mus eta partxis txapelketak.

18:30 Haur jolasak.
21:00 Kodah taldearen kontzertua.
22:00 Bokatak eta zezensuzkoa.
23:00 Koda taldearen kontzertua.
00:00 Su artifizialak.
01:00 Izozki saltzailea.
Gaupasa, Arka Djarekin.

ARRUAZU

SAN PEDROAK

EKAINAK 28 Ostirala

15:00 Bakoitzak bere etxeko ataria garbitu.
18:30 Suziria herriaren etxetik.
19:00 Meza, San Pedro baselizan.
19:30 Merendua, Sanpedron.
Oharra: baserritarrez jantzita joatera animatzen dute
20:30 2023an jaiotakoei zapi banaketa.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Arbazuko zortzikoa, plazan.
22:45 Afaria, Itur Gain elkartearen.
00:30-04:30 Kaixo taldearekin dantzaldia eta jauziak.



UTZITAKOA

ARBIZU Arbizun San Joan festak ospatzen ari dira.

EKAINAK 29 Larunbata

17:30 Dindaiarekin haurrendako jolasak, elkartearen atzekaldean.
16:30 Mus txapelketaren finalerdia eta finala, Itur Gain elkartearen.
18:00-20:00 Xaukena elektrotxarangarekin etxex etxe parranda.
20:00 Gazta eta ardoa, haur parkaren parean.
20:00-22:00 Kaixorekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
00:30-04:30 Biziraun taldearekin zirriak eta irriak.

EKAINAK 30 Igandea

12:00 Meza.
12:30-15:00/17:00-19:30 Haur parkea.
18:00 Ubelde jaitsiera Koxkotik Ubeldetxabalira.
19:00 Haurrendako txokolate jana.
19:00-21:00 La Topadora taldearen

kontzertua.

20:00 Gazta eta ardoa, Ostatuaren ondoan.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Herri parrillada, plazan.
00:30 Bidondo Djarekin festa.

UZTAILAK 1 Astelehena

15:00 Herri paella, zuhaizpien. Bazkalostea trikitiekin girotuta.
17:30 Nomadak Zirkuaren *Zepelin* ikuskizuna.
18:30 Bingo musikatua.
20:00 Gazta eta ardoa, frontoiaren aurrean.
22:00 Zezensuzkoa txikiendako.
22:30 Herri parrillada, frontoian.

UNANU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 28 Ostirala

13:00 Txupinazoa eta auzatea.

13:00-14:30 Trikitixa.

18:00-20:00 Kharmia taldearen kontzertua.
19:30-20:30 Trikitixa.
20:30-22:00/00:30-04:00 Edelweiss taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 29 Larunbata

12:00 Puzgarriak eta eskulan tailerra.
Txaranga.
13:00 Meza
16:00-18:00 Puzgarriak eta aurpegi margoketa.
18:30 Oberena dantza taldearen emanaldia.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00/00:30-04:00 The Trikitiens taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 30 Igandea

11:00-14:00 Ekojolasak eta puzgarriak.



Kaixo
Kafetegia - Jaletxea

Gozatu sanpedroak!

García Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteikaixo.com



Txalaparta
Taberna

Ongi pasa sanpedroak!

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

13:00-14:30 Duo Chavelarekin mexikarrak.
18:00-21:00 Txaranga.
20:00 Auzatea.

LIZARRAGABENGOA FESTAK

EKAINAK 28 Ostirala

18:00 Festen hasiera.
Puzgarriak eta japoniar bonbak.
19:30 Auzatea eta musika.
21:30 Afaria.
23:00-02:30 Musika.

EKAINAK 29 Larunbata

12:00 Etxez etxe musikarekin.
16:00 Puzgarriak.
17:00 Japoniar bonbak.
18:30 Sakanako Harri jasotzaile eskolaren erakustaldia.
19:30 Auzate eta musika.
21:30 Afaria.
23:30 Jaitzilsko Mariachi Band taldearen kontzertua

EKAINAK 30 Igandea

12:00 Etxez etxe musikarekin.
17:00 Puzgarriak.
Mus txapelketa herrikoia.
17:30 Japoniar bonbak.
19:00 Kontzentrazioa: *Etxera*.
20:00 Auzatea eta musika.

URDIAN

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 29 Larunbata

12:00 Etxajua eta festen hasiera Txaranga Txorongok alaitua.
2023. urtean jaiotako hurrei harrera eta zapi banaketa.
12:15 Haurrendako fantasiazko makillajea Carla Benitez makilatzailearen eskutik.
16:00 Eskolarteko txirindularitza lasterketa: eskolartekoa, herri gunean egindako zirkuitoan.
Burunda Txirindularitza Taldeak antolatuta.
20:00-22:00 Aiko taldearekin dantzaldia.
22:00 Herri afaria.
00:00-03:00 Zutik taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 30 Igandea

10:30 Ardo banaketa, San Pedroko hariztian.
11:00 Meza, San Pedroko basilizan.
14:30 Bazkariak, San Pedroko zelaian.
17:00 Zortzikoa.
19:00 Salbea eta herrira itzulera.
20:30-22:00 Pancho Balbuena mariatxiaren emanaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Xaibor DJa.

UZTAILAK 1 Astelehena

10:00 Gosaria, Tintiniturri elkarteak eskainia, alondegian.
12:00 Meza nagusia.
12:30-14:00 Fidel Zelaiarekin dantzaldia.
14:30 Jubilatuen bazkaria, Fidel Zelaik alaitua.
17:30 Txaranga Txorongorekin kalejira.
18:00 Talo tailerra, plazan.
18:00-20:00 Lentzeria erakusketa, auzoan.
20:00-22:00/00:00-03:00 Sukar taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 2 Asteartea

10:00 Gosaria, herriko ehiztarien elkarteak eskainia.
13:30 Etorkezuna dantza taldearen emanaldia.
17:30 Ilunberriko txarangarekin kalejira.
18:00 %100 Hodei magia ikuskizuna, plazan.
18:00-20:00 Lentzeria erakusketa, auzoan.
20:00-22:00 Itzal taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00-03:00 Itzal taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 3 Asteazkena

10:00 Gosaria, Aitziber elkarteak eskainia, alondegian.
12:00-14:00 Ur txirrista.
13:00 Mantis taldearekin dantzaldia.
14:30 Herri bazkaria.
16:00-19:00 Ur txirrista.
17:30 Elektrokela elektrotxarangarekin etxez etxe.
18:00-20:00 Lentzeria erakusketa, auzoan.
20:00-22:00 Andoni Ollokiegi bakarariaren emanaldia.
00:00 Deserrite taldearen kontzertua.
01:30 Haizkan taldearekin kontzertua.

ALTSASU

SAN PEDRO EGUNA

EKAINAK 29 Larunbata

10:00 Udalbaltza, Altsasuko Txistulariekin batera, San Pedroko zelaia abiatuko da.
10:45 Auzatea eta zortzikoa.
14:30 Bazkariak.
17:00 Udalbatzaren agurra zelaian barrena eta puruen banaketa.
20:00-22:00/24:00-02:30 Fand&Go taldearekin dantzaldia, Foru plazan.

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARAKIL
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARRUAZU
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ARBIZU
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
ERGOIENA
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
LIZARRAGABENGOA
libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko
URDIAN
libre!

Mank
sakanera

Izan giltzarri!



Aitor Larraza Carrera Sakana





Kaixo,

Aitor Larraza naiz.

Lehenengo eskutik informazioa jaso nahi baldin baduzu eta bertako hedabide bat bultzatu nahi izanez gero euskalduna dena gainera:

Egin zaitez Guaixe Fundazioaren bazkide!

Eta izan zaitez komunitate honen giltzarri ere!



**guaixe.eus/
kideak**

ko Mankomunitateko lehendakaria



UDALA

Aisialdi eskaintza hasi da

Olatzagutiko Udalak haurrendako Udan Euskaraz aisialdia eskaintza astelehenean, garagarriaren 24an, hasi zen. 68 haurrek eman dute izena aurten, 5 eta 12 urte artekoak. Haiekin batera bederlatzi begirale daude. Bada begiraleen koordinazioaz arduratzen dena ere. Udan Euskaraz eskaintza astegun goizetan da, garilaren 18ra arte.

Mustu dute tortura ardatz duen dokumentala

Altsasuko Iortia kultur guneak hartu zuen Arg(h)itzen dokumentalaren mustutzea, "torturaren egia itzaletik argitara ateratzeko helburuz" egindakoa. Aurreneko emanaldian dokumentalean parte hartu duten 30 torturatu sakandarrak eta beste parte hartzaile batzuk ere izan ziren. Dokumentala ikusi zuten artean daude Sakanako hamahi-

ru udaletako ordezkariak, Ana Olo kontseilaria, Nafarroako Parlamentuko presidente Unai Hualde, Arantxa Izurdiaga, Irati Jimenez, Mikel Asiain eta Carlos Guzman parlamentariak.

Nafarroako Torturatuen Sareko Ainara Gorostiagak dokumentala posible egin duten guztiei eskerrak eman zizkien. Eta ekitaldia baliatu zuen arrazoizko politikoen eskubideen urraketa pairatu dutenei legeak zabaldutako prozedurara aurkezteko.

DUELA 25 URTE...



Gazteak ezkila errepikan

Maiatzaren 3tik irailaren 14ra, gurutzetik gurutzera, egunero, eguerditan, ezkila errepikak izaten dira Altsasun. Garai hartan Mikel Santamaria, Cesar Olmos, Felix eta Xabi Martinez, Asier Vicario eta Iker Bueno gazteak hartu zuten beren gain ardura hori. 16 eta 19 urte artean zituzten. Gustura aritzen ziren errepika jotzen, nahiz eta festen ondorengo egunetan "latz" egiten zitzaizkien errepikarako garaiz esnatzea.

Iratxok 8.500 euro eman dizkio UNRWari

Sakanako Ibilaldi Handian parte hartzaile bakoitzeko bi euro jaso zituzten. Bestetik, kirol proban jaso ez ziren sariak Palestinarako funts gehiago lortzeko zozketatu zituzten. Guztia borobiltzeko elkartasun afaria. Dena Gaza ardatz hartuta

IRURTZUN

Ekialde Hurbileko Palestinar Iheslariei Laguntzeko Nazio Batuen Agentziak, UNRWak, 8.500 euro gehiago ditu. Iratxo elkarteak kide Manolo Moreno Iribasek azaldu zuenez, "hilabete luzeetako genozidioa eta neurrigabeko sufrimendua pairatzen ari diren palestinarren bizitzak zertxobait hobetzen laguntzeko balioko du diru horrek". Agentziako ordezkari Javier Moreno Lopezek jaso zuen txekia. Iratxo elkartearen egindako elkartasun afariaren ondoren izan zen.

Elkarteak Sakanako Ibilaldi Handikomendimartxa antolatzen du eta parte hartzaile bakoitzeko bi euro Gazarako bideratu zituen. Diru bilketa egiteko elkartasun afaria antolatu zuen ostiralera. 75 bat pertsona elkartu ziren eta izen emateetatik 1.150 euro eskuratu ziren. Mendi martxan jaso ez ziren bost sari emateko zozketako txartelak saldu zituzten eta horrela 1.650 euro eskuratu zituzten. Guztira, 8.500 euro. Iratxo elkarteak "bihotzez, eskerak" eman dizkie Ibilaldian parte hartu zuten mendizale eta laguntzaileei eta afarian izan zirenei.

Iratxo elkartearen UNRWako kideek salmenta postua jarri zuten, eta jangela Palestinako



Iratxo elkartearen afaldu ondoren eman zioten txekia UNRWako kideari. UTZITAKOA

banderekin eta agentziaren panel eta argazkiekin apaindu zuten. Mahaiaren bueltan bildu zirenek afari bikaina dastatu zutela esan zuten. Uhartea Arakilgo Mirenen gidaritzapean, marokoar kutsuko afari izan zen: kuskusa, oilasko errea, emakume marokoar batek egindako pasta goxoak eta, bukatzeko, te beltza. Menuak mundu arabiarrarekin inolako zerikusirik ez zuen "tokiko ukitua" izan zuen: Palacios enpresak Ibilaldirako emandako eta soberan geratutako txorizoak aprobetxatu eta sagardotan egosi

zituzten. Gainera, sagardoa eta ardoa ere izan ziren.

Afaldu ondoren, Bi Sisters Burger-ek eskainitako hiru bazkari afari bikoitz eta Kubo jate-txearen bazkari bikoitza zozketatu zituzten. Horretarako, zenbakiak ausaz ateratzen dituen programa bat erabili eta zenbakiak telebistako pantailan nola ateratzen ziren ikusi zuten. Bukatzeko, goiko solairuan, Gazako uraren kutsaduraren inguruko Escape Roomean parte hartu zuten. Horretan aritu zirenei gaur "nahiko" luzatu zitzaizkien.

Ogasuneko zordun handien artean lau sakandar gutxiago

Bederlatzi ageri dira: industriako lau, ostalaritzako hiru, eraikuntzako bat eta merkataritzako bat

SAKANA

Foru Ogasunarekin duten zorra 120.000 eurokoa edo gehiagokoa duten zergadun zordunen zerrenda argitaratu du Nafarroako Gobernuak. 2023ko akaberan 653 zergapekok 319,5 milioi euro zor

zizkioten. Zordunen %1,37 sakandarra da eta zor guztiaren %1,10 dute. Bederlatzi zordun sakandarrak ogasunari 3.526.009,93 euro zor dizkiote.

Industria arloko zordunek ibarreko zorraren %36,62

dute, 1.291.300,88 euro. Lau enpresa dira, eta denak itxita daude finantza erakundeek eragindako krisiak bete-betean jo ondoren. Hiru zordun ostalaritzakoak dira, eta denak itxita daude. Hiruren artean zorraren %26,23 pilatzen dute, 924.889,59 euro. Eraikuntzako zorduna 2008ko krisiaren ondoren itxi zuen. Ibarreko zorraren %14,69 du, 517.795,3 euro. Azkenik, zabalik dagoen merkataritzako enpresak ibarreko zorraren %21,71 pilatzen du, 765.598,93 euro.



Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko finalista guztiak. Tartean, Larraza, Igoa eta Beltza. EMAKUME MASTER CUP

Maialen Larrazaren txapela eta Irati Igoaren trofeoa Lekunberrin

PALETA GOMA Lekunberriko Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko finaleran, kadeteetan Maialen Larrazak txapela lortu zuen, eta eliteetan Irati Igoa txapeldunorde izan zen. Asteburuan, Espainiako Txapelketetan parte hartuko du Larrazak

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Ekainaren 23an Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko final handiak jokatu ziren Lekunberrin. Guztira 350 pilotazale inguru bildu ziren Jaian Jai pilotalekuan finalistak animatzera, giro ederrean. Hiru final jokatu ziren, eta horietako bietan ordezkari sakandarra izan genuen. Kadete mailan txapela Sakanara etorri zen, Maialen Larraza etxarriarrak eta Julene Iminziagak 30-19 irabazi baitzieten Elaia Zabalzari eta Irati Zabalza ordezkatu zuen Auritze Beltza etxarriarrari, final nahiko erosoan. Eta eliteen mailako finalean, Irati Igoa etxarriarrak eta Amaia Espinalak 30-23 galdu zuten Paula Gorostiagaren eta Juncal Quevedoren kontra, final gogorrean. Lehen mailan garaipena etxean geratu zen, Irati Gartziaienak eta Ma-

ria Eguskizak 30-20 irabazi baitzieten Artazkozi eta Esparzari.

Larraza-Iminziaga, biko sendoa Maialen Larraza Senar Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko palista da, eta Lekunberrin jantzitako txapelarekin "oso pozik" dago. "Giro ederra egon zen finaleran, oso gustura ibili ginen". Elorriko Julene Iminziagarekin jokatu zuen, eta bikote ona osatzen dutela agerikoa da. "Ez da berarekin jokatu dudana lehenengo aldian. Pala munduan eza gutu ginenetik harreman ona dugu, eta elkarrekin txapelketa

"IMINZIAGAREKIN PALA BIKOTE ONA EGITEN DUGU; GUSTURA IBILI GARA" MAIALEN LARRAZA

batzuk jokatzeko gustatzen zaigu. Euskal Herriko Txapelketa ere berarekin jokatu nuen, eta oso ongi moldatzen gara. Bikote ona egiten dugula uste dut. Emakumeen Master Cup-ek antolatutako Nafarroako Foru Komunitateko Txapelketa honetan gustura aritu gara".

Ekainaren 15ean, Etxarri Aranatzen jokatu zuten finalerdietan Irati Goikoetxeari eta Maddi Lasari irabazita sailkatu ziren Lekunberriko kadeteen final handirako. Beste finalerdian, tamalez, Lexuri Lazkoz eta Onditz Gantzarain sakandarrek ezin izan zituzten Elaia eta Irati Zabalza lehengusinak mendeen hartu, eta Aurizberri inguruko bikoa sailkatu zen finalerako.

Hasieratik, aurrean Maialen Larrazak eta Julene Iminziagak Elaia eta Irati Za-

balza zituzten arerio final handian, baina Iratik ezin izan zuen jokatu, eta etxarriar batek ordezkatu zuen, Auritze Beltzak. Finalean 30-19 gailendu ziren Larraza eta Iminziaga. "Hasieratik aurreratu ginen, eta nahiko ongi ibili ginen. Alde polita izan genuen une oro, 8 tanto ingurukoa, batzuetan gutxiago eta beste batzuetan gehiago. Bukaera aldera Zabalza eta Beltza pixka bat gerturatzen hasi ziren, baina ez zuten gehiegi hurbiltzea lortu". 30-19, garaipen nahiko lasaia izan zen. "Hala dirudi, baina tantoak landuak izan ziren. Ez zen final erraza izan, ederki izerditu genuen".

Denboraldi bikaina

Maialen Larrazak denboraldi ona egin du. Sakanako Pala Txapelketan Lehen Mailan debutatu zuen eta txapela jantzea lortu zuen, Enara Mazizorrek, eta Euskal Herriko Paleta Goma Txapelketako kadeteen mailako txapeldunordea izan zen Lexuri Lazkozekin, besteak beste. "Baina aurretik 30 metroko frontoiko Bakarkako finalerako sailkatu nintzen, eta nahiz eta finala galdu, txapelketan egindako lanari esker Espainiako Paleta Gomako Txapelketa jokatzeko aukera izango dut, eta oso pozik nago. Bestalde, Julene Iminziagarekin ere Euskal Herrikoan jokatu nuen, Nafarroako Kirol Jokoetan Binakakoan Lexuri Lazkozekin jokatu nuen, eta denboraldia bukaera honetan Emakumeen Master Cupeko Nafarroako Torneoko txapela iritsi da. Trinketean ere lehiatu naiz, baina hor ez naiz horren fin ibili. Orain, denboraldia despeditzeko, Espainiako Paleta Goma Txapelketa dut jokoan. Ea zer moduz doakigun".

Asteburuan, Valladoliden

Valladoliden jokatu da Espainiako Txapelketa. Atzo, ekainaren 27an hasi, eta igandean, ekainaren 30ean despedituko da. Nafarroako selekzioarekin joan da Maialen Larraza bertara. "Ni eta Elaia Zabalza gaude Banakako Paleta Goma Txapelketarako.

"ASTEBURUAN ESPAINIAKO TXAPELKETAN ARIKO NAIZ. GOGOTSU NAGO" MAIALEN LARRAZA

Irati Igoa, eliteetan txapeldunorde

Irati Igoa Sesma etxarriarrak Juncal Quevedorekin osatu zuen bikotea Nafarroako Foru Komunitateko eliteen mailako finalean. Final gogorra jokatu zuten Paula Gorostiagaren eta Juncal Quevedoren kontra. "Oso partida lehiatua izan zen, eta nahiko paretsu joan zen. Final interesgarria izan zen, ikusteko oso polita, bi biko oso indartsu zirelako. Tanto bakoitza oso borrokatua izan zen. Paula eta Juncal hasieratik aurreratu ziren, baina alde gutxirekin. Iratik eta Amaiak borrokatu zuten, baina ezinezkoa izan zen, eta 30-23 galdu zuten. Pena da Iratik irabazi ez izana, baina egindakoarekin oso kontentu egon daiteke".

Hautatzaileak erabakiko du gutako nori jokatu duen partida bakoitzean. Oso gogotsu nago, ilusio handiz" aitortu du etxarriarrak. Izan ere, bere pala ibilbidean aurrerapauso nabarmena da. "Espainiako Txapelketara joaten naizen lehenengo urtea da, eta niretako dena da berria. Irrikaz nago, zein maila dagoen ikusteko desiotan". Izan ere, palista etxarriarraren iritiz, "geroz eta maila handiagoa dago. Jende gehiago aritzen da paleta goman, eta nabaritzen da". Jakina, Gure Pilotakoak daude onenen klubean.

Hitzordu garrantzitsua presatzeke azken egunotan jo eta fuego aritu da entrenatzen. "Biskarretan entrenatu dugu, frontoi berezia behar zelako eta bertakoa egokiago delako". Denboraldia Valladoliden borobildu nahiko luke. "Ea lan ona egiten dugun". Zenbat txapela dituen galdetuta, kontua galduta du jada. "Esango nuke txikitatik ditudanak ere kontuan hartuta, guztira hamalau txapela inguru izango direla, hor nonbait, baina ez dakit ziur". Beste askorendako tokia, egon, badago.

"Madrilen bosgarren, oso pozik; ez nuen espero"

AIMAR TADEO ARKAUZ FINISHER TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Espainiako Txapelketetan Nafarroako selekzioarekin lehiatu zen lakuntzarra, eta errepideko lasterketan bosgarren sailkatu zen, maila bikainean arituta

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

Aimar Tadeo Arkauzen bigarren urtea da aurtengoa amateurretan, Finisher taldearekin. Nafarroako Itzulian lehen nafarra izan zen, eta asteburuko Espainiako Txirrindularitza Txapelketetako errepideko proban bosgarren sailkatu zen, ederki arituta.

Joan zen urtean debutatu zenuen, eta aurten esperientzia gehiago duzula agerikoa da.

Iaz nahiko ongi ikusi nuen neure burua kategorian berrian, eta aurten pauso handiagoa eman nahi nuen, baina hasiera ez zen oso ona izan, bakterria batekin arazoak izan nituelako. Buelta eman nion, eta orain nahiko ongi ari naiz.

Zer egiten zaizu zailena?

Ordu asko sartu behar direla, eta gauza batzuk utzi behar dituzula bizikletan ordu gehiago sartu ahal izateko. Abiadura handia da, eta etapa laueta kostatzen zait, ni mendian askoz ere hobeki moldatzen naizelako. Aldapan gora hobe.

Bi itzuli garrantzitsuetan aritu zara, Nafarroako Itzulian eta Volta Castellonen. Nafarroako Itzulian lehen nafarra izan zinen.

Bai. Nahiko indartsu ikusten nuen neure burua, baina ez nuen espero horrenbesteko maila emango nuenik. Nafarroako maila janztean ilusio berezia sentitu nuen, baina, bestalde, nahiko urduri jarri nintzen, eta hirugarren etapa ez nuen oso ongi eramanez. Baina denetatik ikasten da. Poz handia izan zen lehen nafarra izatea. Volta Castellonen ez nintzen horren ongi ibili, lehengo beroak izan zirelako.

Beroekin ez al zara ongi moldatzen?

Eguraldi hotza eta freskoarekin hobeki aritzen naiz, eta horregatik aurten berora egokitze prestaketa egiten ari naiz. Entrenatzen beranduago ateratzen hasi naiz, bero gehiago egiten duenean, eta etxean berozko

arrabola delakoa dut. Etxeko leku itxi batean aritzen naiz arrabolan, berogailua ondoan dudala, gorputza sentsazio horretara egokitze. Nahiko gogorra da, baina, gutxika, ohitzen ari naiz.

Larunbatean Espainiako Txapelketetan amateurrek San Lorenzo del Escorialen jokatu zuten errepideko etapa, 160 km-ko etapa luzea. Luzea, eta gorabeheratsua. Igo, gero pixka bat jaitsi, atzera ere gora... horrela joan zen lasterketa guztia. Gustura, nire territoria baita hori: etapa gorabeheratsua ongi datorkit. Nafarroako selekzioetik argi genuen ahalik eta jende gehiena sartu behar genuela eguneko ihesaldian, pentsamendu horrekin ateratzen, eta lau sartu ginen. Adrian Martinez eta Martxel Etxeberria aurrean egon ziren tarte batean, eta tropelean Mikel Uncillak lan handia egin zuen. Tropelekin zegoen distantzia mantendu nahi genuen, baina azkeneko 500 metroan tropelak harrapatu gintuen. Hala ere, bosgarren postua lortu nuen, eta oso pozik nago lortutakoarekin.

Top 5ean sailkatzea sekulakoa da. Momentuan ez nuen gehiegi pentsatu, egia esan, baina gero buelta batzuk eman nizkionean... Banekien nahiko ongi iritsi nintzela txapelketetara, baina hala maila emango nuenik ez nuen espero. Finisherren ere oso pozik daude. Gainera, Pablo Carrasco taldekidea seigarren sailkatu zen, eta biak Top 10ean sailkatu izana ilusio handia da.

Nola dator egutegia?

Uztailaren 17tik 21era Aostako Giroa jokatu dut Italian, eta

"UZTAILEAN AOSTAKO GIROA JOKATUKO DUT. EGUNOTAN ALTUERA LANTZEN ARI NAIZ ARETTEN"



Aimar Tadeo eta Adrian Martinez lakuntzarrak arerioak eta lagun handiak dira. UTZITAKOIA

horretarako prestatuko naiz. Maila handiko lasterketa da, eta ikastera goaz. Egunotan Aretten egongo naiz, altuera lantzen.

Afizionatuen mailan bost sakandar lehiatu zineten Espainiako Txapelketetan. Maila handia dago hemen. Txikitatik ikusi dugu Sakanan txirrindulari profesionalak atera izan zirela. Eta horrek animatzen zaitu, egingarria ikusten duzu; ilusio estra bat da.

Lakuntzan, egun, Adrian Martinez eta biok zarete afizionatuak. Tropelean aurkariak, baina lagunak. Tropelean lehia hori dago, bi taldekoak garelako, baina lasterketa bukatzen denean lagun handiak gara, hori oso argi dugu.

"Madrilgo erlojupeko zazpigarren; sekulakoa"

ADRIAN MARTINEZ DOS SANTOS LABORAL KUTXAKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Espainiako Txapelketetan Nafarroako selekzioarekin lehiatu zen lakuntzarrarendako. Erlojupekoetan ongi aritzen da, baina zazpigarren

Aita Alberto Martinez duzu, Euskaltel Euskadiko txirrindulari ohia.

Berak ere gaur egungo afizionatuen maila lehiakorragoa dela uste du?

Bai, askotan esan dit. Denak bezala, txirrindularitzak ere aldaketa handia izan du. Berak gehien sumatzen duena da gaur egun azkarrago joaten dela, eta dena profesionalizatuta dagoela. Aita gertu izatea luxua da. Berak bizi izan du, eta asko laguntzen digu.

Nolakoa izan da denboraldia?

Denboraldia Iparraldeko Essor Basquen hasi nuen, eta orduetik Euskaldun Txapelketetako lasterketak jokatu ditut gehienbat. Ataungo berezia izan zen, Gari Ugarte taldekideak irabazi zuelako eta ni berarekin egon nintzelako ihesaldian. Ahal izan nuen guztian lagundu nuen.

Espainiako Txapelketetako afizionatuen erlojupekoan zazpigarren sailkatu zinen, hasi berri batendako, meritu izugarria.

Afizionatuen nire lehenengo urtean Espainiako Txapelketetara joan ahal izatea, hori jada opari bat izan zen, eta zazpigarren postua lortzea izugarria izan da. Oso kontentu nago.

Espero al zenuen?

Banekien ongi egin ahal nuela, erlojupekoan ongi egiten ditut eta. Ez dakit aitareneren generen bat edo izango den, baina modalitatea ongi datorkit (kar-kar). Zazpigarren izatea sekulakoa izan da.

33,4 km-ko erlojupekoa zen Galapagarrekoa, oso luzea. Oso luzea, eta gogorra. Proban ongi sentitu nintzen, eta indarrak eta abiadura dosifikatzea oso garrantzitsua izan zen. Egundik bikaina izan nuen, eta guztiak

"BOST SAKANDAR GEUNDEN NAFARROAKO SELEKZIOAN. MAILA OSO HANDIA DUGU IBARREAN"

M.B.G. LAKUNTZA

Adrian Martinez Los Santos lakuntzarrak aurten debutatu du afizionatuen mailan, Laboral Kutxarekin. Espainiako Txapelketetan zazpigarren sailkatu zen erlojupekoan, lorpen ikusgarria, eta "oso kontentu" dago.

Afizionatuen mailako lehen urtea oso gogorra omen da.

Bai, niri ere gogorra egin zait. Hasiera kaxkarra izan nuen, erritmoa hartzea kostatu zitzaidalako, baina lasterketak pasa ahala eta entrenamenduak hobetuz, erritmoa hobeki hartzen ari naiz eta gora egin dut. Zailena, kategorian dagoen maila handia da.

Joan koa da"

ARIA
n aritzea jada "sari handia" zen
arren sailkatzea ez zuen espero

batera emaitza hori ekarri zuen. Ekainaren 2an beste erlojupeko bat egin nuen Vianan, Nafarroako Erlojupeko Txapelketa zena. 22 km ziren, eta luze egin zitzaidan. Pentsa Madrilgoa, 33 km! Gogor-gogorra izan zen. Nafarroakoan txapeldunordea izan nintzen, Ibai Azanzaren atzetik, eta pozik.

Hemendik aurrera zein egutegi duzu? Euskaldun eta Lehendakari Txapelketetako egutegian jarraitzea espero dut, eta taldetik esan zidaten agian bueltaren batean sartuko nautela. Maila honetako itzuliak oso gogorak dira, eta nire gorputza probatzea gustatuko litzaidake.

Aimar Tadeo lakuntzarra (Finisher) laguna eta arerioa duzu, aldi berean. Bai (kar-kar). Entrenatzera biak batera ateratzen gara, Mikel Uncilla, Iker Agudelo, Aitor Ondarra eta beste sakandarrekin batera. Talde polita dugu, oso ongi moldatzen gara. Aimarrek eta biok harreman oso ona dugu, bai txirrindularitzan, eta baita kanpoan ere. Lakuntzan lagunekin ateratzen gara.

Aimarrek Espainiako Txapelketa oso ona egin zuen.

Aimar proba garrantzitsuetan ongi moldatzen da beti. Lau sakandarrak eguneko ihesaldian sartu ginen. Aimarrek aurrean segitzea lortu zuen eta bosgarren sailkatu zen, oso ongi.

Nahia Imazek brontzea lortu zuen erlojupekoan, eta Mikel Uncilla eta Martxel Etxeberria ongi ibili ziren errepidean. Nolako maila dagoen Sakanan...

Oso ona. Nafarroako selekzioan bost sakandar ginen; Nahia Imazek oso ongi egin zuen, eta gainontzekoek ere bai. Aurki junior eta kadete mailako Espainiako Txapelketak jokatu dira Ovie-don, eta bederatzi sakandar izango dira bertan. Luca anaiak igandean kadeteen lasterketa irabazi zuen Agurainen, eta Ovie-dorako hautatua izan da.

"Egin behar nuen kronoa egin nuen, eta pozik nago"

NAHIA IMAZ PEREZ TEAM ZATIKA BIKE TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Txirrindulari altsasuarra Espainiako Txapelketetan atzera ere podiumera igo zen, eta erlojupekoan zilarrezko domina lortu zuen

M.B.G. ALTSASU

Nahia Imaz Perez altsasuarra (Team Zatika Bike) Madrilen jokatuako amateurren eta profesional mailako Espainiako Txirrindularitza Txapelketetan parte hartu zuen emakume sakandar bakarra izan zen. Sari potoloena lortu zuen, erlojupekoan brontzezko domina ekarri baitzuen.

Joan zen urtean Sopela Women's Team taldeko txirrindularia zinen, baina taldea desagertu, eta talde berria lortu behar izan zenuen aurtengo denboraldirako. Zaila izan al zen?

Guk ez genekien taldea desagertu behar zela, eta erabakiak sorpresaz harrapatu gintuen. Urte hasiera arte ez nekien zein taldetan egongo nintzen, eta talde nahiko desagertu zirenez, neska asko talde bila geunden. Zorionez, azkenean taldea aurkitu nuen, eta pozik nago, baita ditudan taldekideekin ere.

Talderik gabe zeundela, gaizki pasako zenuen.

Motibazio berdinarekin jarraitu nuen entrenatzen, baina egia da ez zela egoerarik onena.

Team Zatika Bike da zure talde berria. Bertan tokia egitea erraza izan zen?

Betiko erritmoa jarraitu nuenez, egokitzapena ona izan da, nire ustez. Balorazio ona ematen diot. **Bigarren urtea duzu amateur mailan. Zer moduz joan da denboraldia?** Aurre denboraldi ona egin nuen. Denboraldia ongi hasteko asmoa nuen, eta bete dudalakoan nago. Gutxinaka erregulartasuna bilatu dut, eta ia lasterketa guztietan neure burua aurrean ikusi dut.

Nafarroako errepideko txapelduna zaitugu, berriki Lizarran jokatuako lasterketan lehen nafarra izan eta gero, baina Nafarroako Erlojupeko Txapelketan ez zinen aritu.

Asteburu horretan Espainiako selekzioarekin Andaluziako Itzulia parte hartu nuen. Justu



Nahia Imaz Perez, eskuinean, Madrilgo podiumean, dominarekin. FEDERAZIOA

ekainaren 1ean bueltatu nintzen, eta Nafarroako Erlojupeko ekainaren 2an zen. Azterketak ere tartean nituen, eta lehentasuna azterketei ematea, eta Nafarroako Erlojupekoan parte ez hartzea erabaki nuen.

Zer moduz zabilta ikasketak eta txirrindularitza uztartzen?

Donostian gradu bikoitza ikasten ari naiz, Fisioterapia eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak. Guztia aurrera ateratzea ez da erraza, asko ikasi behar dudalako, baina gutxika, nik uste aterako dudala. Ikasturtean zehar Donostian bizi naiz, eta bertako errepideetan entrenatzen dut. Sakanan txirrindulariok zorte

handia dugu entrenatzeko orduan, gure errepideak nahiko lasaiak direlako, baina Donostian auto eta trafiko asko dago, eta kontu handiz ibili behar da.

Madrilen jokatuako 33,4 kilometroko erlojupeko luzean Mireia Benito (AG Insurance-Soudal) gailendu zen, eta zu hamargarren sailkatu zinen (48:20), Espainiako brontzezko domina.

"ERLOJUPEKOAK GUSTUKO DITUT. ONGI ERREGULATU NUEN, ETA BRONTZEAREKIN POZIK NAGO"

Erlojupekoak asko gustatzen zaizkit eta azken hiru urtetan Espainiako Txapelketetan beti podiumean egon naiz. Nire helburua berriz ere podiumean egotea zen, eta lortu dut. Egin dudan kronorik luzeena izan zen Galapagarrekoa; ondo erregulatu beharra zegoen, baina helburua bete genuen eta pozik nago. **Zergatik zen erlojupeko horren luzea?**

Joan zen urteko erlojupeko 31 km-koa zen, eta aurten 2 km luzeagoa zen. Urteik urtera distantzia luzeagoak jarri dituzte, eta hurrengoak kopuru hauetan geratuko direla dut. Probari ikusgarritasun gehiago emateko egiten dute. Dena den, erlojuaren kontra ona den txirrindulari bati kilometro gehiago egitea komeni zaio. Espezialistendako, erlojupeko luzeagoak hobeak direla uste dut.

Txapelketetan egindako lanarekin kontentu zaude?

Bai. Egin behar nuen kronoa egin nuen, eta pozik nago lortu-takoarekin. Horretaz gain, txapelketetako errepideko proban ere lehiatu nintzen San Lorenzo del Escorialen (110,3 km), eta 28. sailkatu nintzen.

Nola jarraituko du zure egutegiak? Brontzeak eragina izango du datozen lasterketei begira?

Asteburuan Katalunian hiru eguneko lasterketa dugu, eta uztaila erdian Espainiako koparen bat jokatu dugu. Bestelako probak ere etorriko dira. Hemendik aurrera asmoa entrenatzen jarraitzea da, lasterketetan ongi ibili eta datorrenari aurre egiteko.

Aurtengoa urte berezia da, Olinpiar Jokoen urtea. Europako Txapelketak ere etorriko dira. Espainiako selekzioarekin aritu zarenez, selekzioarekin bestelako lasterketetan ariko zara, edo azken unera arte ez duzu jakingo?

Momentuz ez dakit ezer. Erabakiak hartzen dituztenean eta zerbait jakiten dugunean, prestatzen hasiko naiz, hala badagokit.

Espainiako Txapelketetan lehiatu ziren gainontzeko sakandarrekin topo egin zenuen?

Ez nituen ikusi. Lasterketak ordutegi ezberdinetan direnez, zaila da bat egitea.

Amateurren mailan bost sakandar lehiatzea datu garrantzitsua da.

Bai. Horrek hemen txirrindulari onak daudela erakusten du, eta positiboa da.

Markos Beraza, etxean profeta

ENDUROA Igandean etxeko proba, Irañeta Enducross, irabazi zuen Markos Beraza Vitoria pilotu irintarrak. Espainiako Enduro Txapelketako Senior B mailan lehiatzen ari da, eta sailkapeneko buruan dago, jokatutako hiru lasterketak irabazita

Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA

Igandean Irañeta Enducross Txapelketa jokatu zen, Nafarroako Motoziklismo Federazioak eta Beraza Eraikuntzak eta Proiektuak enpresak elkarlanean antolatutakoa. Probako arima Markos Beraza Vitoria motor gidari irintarra izan zen, guztia antolatzeaz eta prestatzeaz gain, lasterketan lehiatu baitzen. "Denetik egitea tokatu zitzaidan: zirkuitua prestatu, lasterketa guztia ongi lotu, paperak eta bestelakoak egin... Lan handia da, baina gustura egiten dugu. Eta, horretaz gain, lasterketan parte hartu nuen" dio, irribarrez, pilotuak.

Orain arte hainbat enduro lasterketa jokatu izan dira Irañetan, baina aurtengoak bestelako berezitasunak zituen. "Zirkuitu iraunkor batean egin da, eta enduro eta motocrossaren arteko nahasketa zen. Hortik izena, Enducross Irañeta". Hasieran entrenamendu ofizialak egin zituzten, irteerako parrilla edo pilotuen kokapena zehazteko, eta gero bi manga jokatu ziren kategorian bakoitzean. Manga bakoitza, kategoriaren arabera, 15 minutukoa zen, gehi bi itzuli gehiago. Itzuli bat egiteko hiruzpalau minutu behar izaten dira, pilotuaren arabera.



Markos Beraza Vitoria, lehia bizian. UTZITAKOIA

Etxekoan, gustura

Open, 85cc-125 cc eta 65cc-50 cc mailatan jokatu zen Enducross Irañeta. Markos Beraza open mailan lehiatu zen, eta profeta izan zen bere jaioterrian. Itzuli azkarrena berak egin zuen, 2:28 minututan, denbora ikusgarria. Are gehiago euriagatik zirkuitua nola zegoen kontuan hartuta. "Aste osoa ibili ginen zerura begira. Tamalez, egun kaxkarra izan genuen, goiz guztian zirimiri egin baitzuen. Zirkuituan jarritako zenbait oztopo euriak kaltetu zituen, tarte horiek traba

bihurtu ziren, eta tapoiak edo ilarak sortu ziren. Azkenean, zenbait oztopo kendu behar izan genituen eta hasieran eromen pixka bat izan genuen, baina gero ongi joan zen lasterketa" kontatu du Berazak.

Irintarrak lasterketa hasieratik kontrolatu zuen, eta alde handiz gailendu zen (20:12), Xabier Otxotorenaren (22:25) eta Eneko Caminoren (22:32) aurretik. Azken bi urtez jarraian Espainiako Senior B mailako enduro txapelduna izan da Markos Beraza, eta estatuko makina bat podiume-

tara igo da, baina jaioterrikoak zapore berezia duela aitortu du. "Etxeko podiumak beti hobeak dira, etxeko jendea dagoelako".

Talde berria: UK Racing

Aurten ere Espainiako Enduro Txapelketan lehiatzen ari da Markos Beraza. Enduroa erresistentzia handiko proba da, asko entrenatu beharra dago sasoiaren egon eta fin aritzeko, eta entrenatzeko denbora falta, hori da Berazak duen arazoa, lanbidez kisuskilea delako eta lan karga handia izaten duelako. Aurten Espainiako Txapelketan aritzea zalantzan jarri zuen, horregatik, baina azkenean animatu zen. "Ahalegin betean nabil, beti bezala. Baina motorra utziz gero, zer egingo nuke? Guztia ere ez da lana izan behar. Motorra nire zaletasuna denez, aurrera jarraitzen dut".

Orain arte, Santanderreko Zona Paddock-ek ematen zizkion asistentzia eta laguntza mekanika kontuetan, baina aurten taldez aldatu da. Berangoko UK Racing da talde berria. "Aldaketak beti ongi etortzen dira. Ongi moldatu naiz aurrekoekin, eta baita egungoekin ere bai. Gure mundua txikia da, eta gure artean beti ongi moldatu beharra dugu".

Espainiako Txapelketan lider

KTM motorren jarraitzaile fidele da Beraza. Aurten ere KTM etxeko motor berria mustu du, lau denborakoa. "Urtero aldatu beharra dago, motorrari egurra ematen diogulako". Espainiako Enduro Txapelketako hiru lasterketa jokatu dira Antasen (Almeria), Santiagon (Coruña), eta Infieston (Asturias), eta Senior B mailako lau denborako hirurak irabazi ditu. "Joan zen urteko txapelketan arerio zuzena zen

Jesus Duarte almeriarra ez da lehiatzen ari, lesionatu zelako, eta nabari da. Alde horretatik, aurreko bi urteetan baino lasaia-go ari naiz".

Lasaitasunik ez

Txapelketa bukatzeko bi lasterketa geratzen dira, azaroaren 10ean eta 11n Cozarren (Ciudad Real) eta azaroaren 24an Obejon (Cordoba) jokatuko direnak, eta agian beste hirugarren bat, lotzen badute. "Egun 150 puntu ditut, eta beste 200 puntu egon daitezke jokoan. Hirugarren aldiz Espainiako txapeldun izan nahi badut, ezin naiz erlaxatu".

Beraza Team taldeko txikiak

Markos Berazak Team Beraza taldea sortu zuen, tartean Irene Beraza iloba eta bestelako neska-mutilak enduroan trebatzeko. "Nik entrenatzen ditut, baina gustura egiten dudana da. Asteazkenetan Irañetan entrenatzen dugu, eta asteburuan kanpora ateratzen gara, beste zirkuituetara. Txikiakin oso pozik, egia esan".

Gaztetxoak Enducross Irañetan lehiatu ziren. "Ongi aritu ziren, oso gustura". 85 cc kategorian Oier Canal gailendu zen, eta Irene Beraza (Beraza Team) laugarren sailkatu zen. 125 cc mailan Goiuri Urria izan zen azkarrena. 65 cc mailan Izan Ardanazek irabazi zuen, eta Aiur Makazaga (Beraza Team) bosgarren sailkatu zen. 50 cc mailan, Markel Viera izan zen bakarra.

"BERAZA TEAM TALDEKO TXIKIAK ENTRENATZEN DITUT. GUSTURA EGITEN DUDAN LANA DA"

Etxarri, ligako txapelduna eta lehen mailako taldea

FUTBOLA Kadeteen bigarren mailako laugarren multzoko txapelduna izateaz gain, mailaz igo da talde etxarriarra

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatz Kirol Elkarteak ez zuen denboraldi bukaera erraza izan, erregional mailako taldeari igoera fasean gertatu zitzaiona kontuan hartuta. Gertaera horiek, tamalez, kadeteen

mailako Etxarri Aranatz taldearen lorpena ezkutatu zuten. Kadeteen bigarren mailako laugarren multzoko liga irabazi zuen Etxarri Aranatzek (68 puntu), Altsasu A laugarren izan zen (54 puntu) eta Lagun Artea zazpiga-

rraren (49 puntu). Horrela, kadeteen mailako igoera faserako sailkatu ziren Etxarri Aranatz eta Altsasu A.

Etxarri Aranatzek ligan egindako lan ikusgarriarekin jarraitu zuen igoera fasean. Larrate taldea bitan mendean hartu zuen, joaneokan 2-5, eta itzulerakoan 4-2, eta igoera fasea gaudituta, 2024/2025 denboraldian Etxarri Aranatzek kadeteen lehen mailan jokatuko du, eta baita Altsasu A taldeak ere. Lagun Arteak, aldiz, bigarren mailan segiko du.



Etxarri Aranatz kadeteen taldeak denboraldi borobila egin du. UTZITAKOIA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 28

ETXARRI ARANATZ
Kontzertua.

Pancho Balbuena mariatxiaren kontzertua eta burger gaua, X. Triku Trail urteurrenaren barruan.
19:30ean, kanpinean.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Azken ostirala kontzentrazioa.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Azken ostirala kontzentrazioa.
20:00etan, kale nagusiaren 7. zenbakian.

ETXARRI ARANATZ

Kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

LARUNBATA 29

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Arruazu, 51 kilometroko ibilbidea.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

OLATZAGUTIA Bisita.

Irulegiko aztarnategira bisita, Olaztiko Udalak eta Aranzadik antolatuta.

09:15 Irteera, autobus geltokitik.

10:30 Ilundaingo aparkalekura iritsi. Bertatik aztarnategira oinez eta arkeologoen azalpenak emanen dituzte.
13:30 Olaztira buelta.

IRURTZUN Antzerkia.

Vivencias de un barco del parque antzeulanaren emanaldia.

18:00etan, jubilatuen elkartean.

IGANDEA 30

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Dulantz gaina, 57 kilometroko ibilbidea.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ Mendi lasterketa.

X. Triku Trail mendi lasterketa, Triku Trail taldeak antolatuta. Euskal Herriko Koparako eta Nafarroako Lasterketen Rankingarako puntuagarria.

Etxarriko Kanpinetik.

09:30 Lasterketa nagusia: 21 km.

09:45 Lasterketa motza: 10 km.

Ondoren, txikiak.

10:00-14:00 Rokodromoa.

UHARTE ARAKIL Aurkezpena.

Haurren Aurkezpena San Migeli.

12:30ean, Aralarko santutegian.

ASTELEHENA 1

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 2

LAKUNTZA Kirol jardunaldi inklusiboa.



EUSKALERRIA IRRATIA

IRURTZUN Luisa Aldaburu artistaren artelanen erakusketa.
Pikuxar tabernan.

Egin kirola Tasubinsarekin kirol jardunaldi inklusiboa: esku pilota eta frontenis txapelketa, Sakanako gazteei zuzenduta. Baldintzak: talde inklusiboak eta raketa.

10:30ean, Sakana frontoian.

OSTEGUNA 4

ALTSASU Batzarra.

Altsasuko festetako Herri txokoa antolatzeke lehenengo batzarra.

19:00etan, Gure Etxean.

OSTIRALA 5

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Zelanda taldearen kontzertua.

20:00etan, Barandi tabernan.

IRURTZUN Ikuskizuna.

Yugén La banda teatro circo konpainiaren antzerki eta zirku ikuskizunaren emanaldia.

JAIOTZAK

• Arya Fernandez Potlog, ekainaren 9an Uharte Arakilen

HERIOTZAK

• Xarita Lekaroz Balezi, ekainaren 19an Lizarragan
• Sergio Gastaminza Baztarrika, ekainaren 26an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

BAZKIDE ZOZKETA
Ekaineko saridunak

1. SARIA
Maria Flores Bengoetxea (Uharte Arakil)

2. eta 3. SARIAK
Mari Carmen Solis Ijurco (Altsasu)
Maria Eguilaz Zabalegui (Arbizu)
M. Angeles Mazkiaran Agirrebengoa (Altsasu)

lacturale gaztezulo guaixe fundazioa

Er^viti aluminio PVC

Akaborro industrialdia 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Kalitatea, harrera ona eta prezio ezin hobea

ESKELA

Sergio Gastaminza Baztarrika



Banintu bi hegala
Joan nindaike berehala
Zure lehio hegira
Kantuz agurtzera

Kanpoan euria dugu
Entzuten ote duzu
Ni ere euri banintz
Joan nindaike berehala
Zure teila hegira
Kantuz agurtzera



Haize Txikiak eta Haize Berriak bandak

ESKELA



Sergio Gastaminza Baztarrika



Beti gure bihotzetan

Zure kuadrila

ESKELA



Sergio Gastaminza Baztarrika

Gure kuadrilako dinamizatzailerik nekaezina.
Etzaitugu ahaztuko.
Doluminak eta animoak
Josune, Koldo eta Karenentzat.

Noizean behingo lagunak

ESKELA

Sergio Gastaminza Baztarrika

Ahazten ez dena ez da inoiz hiltzen,
beti gurekin lagun



80eko zure kintoak
Olazti

ESKELA

Sergio Gastaminza Baztarrika

Une latz hauetan bat egiten dugu
famiariaren saminarekin



Olaztiko herri eskola

ESKELA

Sergio Gastaminza Baztarrika

Gure partidetan parte hartzen jarraituko duzu.
Gure maitasuna Josune, Koldo eta Karenentzat



Altsasuko Saskibaloi Kluba

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Arbizuko kiroldegiko taberna errentan hartzeko enkantea: Garilarren 1ean egongo da enkantea, plegu itxiko sistema bidez, hasierako prezioa 425 eurokoa da (BEZ gabe) hilabetero. Proposamenek kudeaketa eta esplotazio plana ere izan beharko dute. Deialdiari buruzko informazio guztia www.arbizu.eus web orrian dago.

IKASTAROK

Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatuta ditu Altsasuko LH institutuak: Espazio irekietako eta industria-instalazioetako garbiketako ikastaroa (130 ordukoa, irailaren 9tik urriaren 14ra arte, 9:00etatik 14:00etara) eta industria ekipoen mantentze eta muntaitze meka-

nikoak (70 ordukoa, urriaren 10etik 31ra, 15:30tik 20:00etara). Izena emateko enplegu zerbitzuan galdetu.

Igeriketa ikastaroa uztailean Etxarri Aranatzan: 3 urtetik gorako haurrentzat. Kanpinetako harreraren bertan eman daiteke izena. Informazio gehiago 948 460 537 telefonoan.

OPATUTAKOAK

Etxarri Aranatzan 6 gilitza aurkitu dituzte: Hots egin! Giltzarropo batean, gomazko bi panpin txikiarekin batera. Irratian daude.

LEHIAKETA

Zurrunmurraren kontrako ipuin laburren V. Lehiaketa: Antzitasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketa parte hartzera gonbi-

datuta zaude Mank-en Anizartean zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina anizartean@gmail.com helbide elektronikora uztailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian. Zalantzak 648 070 710 telefonora deituz.

OHARRAK

Aupa Etxarri kamixeta: Gwendalen kontzertua dela eta atera diren kamixetak probatzeko aukera izanena da Etxarri Aranazko plazan ostegun eta ostiral arratsaldetan, eta igandetan, eguerdian.

Altsasuko Aek euskaldun baten bila dabil: udan, astean arratsalde batez bi euskaldun berriekin euskaraz aritzeko. Informazio gehiago 600 482 024 telefonoan.

Bakaikuko udako auzolanak: Ekainaren 29an Iturrarteko erreka garbituko da eta Aztalubiatik Algorriko rotondetara doan errepidea garbituko da. Udaran zehar egongo diren beste auzolanetan izena emateko aukera dago udala@bakaiku.eus helbidera idatziz, 948 562 509 telefonora deituz, 622 268 161 WhatsAppera idatziz edota www.bakaiku.eus web orriaren bidez sartuz.

Bi autobus ordutegi bertan behera ekainaren 22tik aurrera: La Burundesak jakinarazi duenez, Olaztiko Iruñara astegunetan, 6:30ean abiatzen den busa eta Iruñetik Olaztira astegunetan, 11:45ean abiatzen den busa bertan behera geldituko dira.

Arbizuko liburutegiaren udako ordutegia: Uztailaren 1etik 19ra goizeko 10:00etatik 13:30era

egongo da zabalik. Uztailaren 22tik abuztuaren 25era itxita egongo da.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otardia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztaila eta abuztuaren Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aho-tsa behar du: 6-15 urte bitarteko haurrekin osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Intereza duenak harremanetan jar dadila corotxiki@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldetxarriaranaz.com web orrian.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba marxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epailean aurrean eramateko. Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekimen ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabili behar du.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Maite Rosende eta Nerea Ariznabarreta egileak saria jasotzen. SAKANAKO MANKOMUNITATEA

'Mamuki' albumak irabazi du Etxepare Saria

Maite Rosende eta Nerea Ariznabarreta egileek irabazi dute album ilustratuak sortzeko sariketaren 5.000 euroko saria; saritutako lana Nafarroako Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, udazkenean

SAKANA

Burlatako Udal Jauregitxoan egin zuten 2024ko Etxepare Sari sari banaketa ekitaldia ekainaren 26an. Maite Rosende eta Nerea Ariznabarreta egileek jaso dute saria, *Mamuki* lanarekin. Irabazleek 5.000 euroko saria jaso dute, udazkenean Pamiela argitaletxeak argitaratuko duen album ilustratuen aurrerapen gisa. Nafarroako 23 toki entitateen euskara zerbitzuak antolatzen dute Etxepare Saria, euskarazko haurrentako album ilustratuen sorkuntza bultzatzeko. Aurten 31 lan aurkeztu dira.

Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaurerik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiatuko dira hura osatzen edo sendatzen: banpiroa, zontzia... edo euskal mitologian dauden Zakuzahar edo Otsoko. Baina alfer-alferrik da. Maite Rosende ilustratzaileak eta Nerea

Ariznabarreta idazleak sortu duten *Mamuki* album ilustratuak kontatzen duen istorioa da.

Mamuki lanaren narrazioa paralelismoetan eta hitz jokoetan eraikia dago, eta erritmoa eta errima erabiltzen ditu, hurrei oso gertukoa eginez. Beldurrari buruzko album umoretsua dela esan zuten sari banaketaren ekimenean, eta "barrea eraginen du ustez beldurra nagusi den kontakizunean". Testua beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatuko da, "gertukoa ta goxoa".

Erritmoa eta errima ere ilustrazioen ezaugarriak dira, "benetan dira samurrak eta maitagarriak, dibertigarriak eta ganberroak". Horregatik aurtengo Etxepare Sari sari irabazlea album

**MAITE ROSENDE
ILUSTRATZAILEA ETA
NEREA ARIZBARRENA
IDAZLEA DIRA
IRABAZLEAK**

"bikaina" da; "testuaren eta ilustrazioaren arteko uztarketa aparta delako". Irakurlearengan irribarrea eta konplizitatea pizten dute eta orrialdeetan atzera egiteko gogoia ematen duela azaldu zuten.

Etxepare Sari sari epaimahaia Miren Aisian ilustratzaileak, Idoia Sobrino liburuzainak eta Patxi Zubizarreta idazleak osatu dute.

Mamuki albuma Maite Rosende Gutierrez ilustratzaileak eta Nerea Ariznabarreta Izkuere idazleak sortu dute. Rosendek Batxilergo Artistikoa ikasi zuen eta ondoren pintura muraleko goi mailako gradua eta ilustrazioa ikasi zuen, Bartzelonan. Hainbat diziplina artistikoetan trebatzen jarraitu du, eta gaur egun freelance gisa egiten du lan. Ariznabarreta Eibarren jaio zen, eta aitarengandik eta amarengandik jaso zuen ipuin kontakizuna eta abesteko zaletasuna. Hogei bat urte daramatza ipuinak kontatzen eta antzerkia egiten.

Haize Txikiak bandaren topaketa bertan behera

Egonaldia egiten ari ziren Etxarri Aranatzan, baina ezbehar baten ondorioz bertan behera utzi dute

SAKANA

Haize Txikiak bandak hiru urte betetzen ditu. Urtean zehar musikari gazteek bi egonaldi egiten dituzte, neguan bat eta udan bestea. Aurtengo udakoa egunotan egiten ari ziren, ekainaren 25etik 28ra, Etxarri Aranatzan, eta Lizarragabengoako festetan eta Irurtzunen ekainaren 28an eta 30ean emanen zizuten kontzertuetarako prestatzen ari ziren. Baina ekainaren 26an ezbehar bat izan zen; Haize Berriak bandako kide baten heriotza. Topaketa eta

kontzertuak bertan behera utzi erabaki dute.

Hogeita hamar bat musikari gazte parte hartzen ari ziren egonaldian. Data "zailak" zirela kontuan hartuta, oso pozik zeuden Jasone Etxebeste eta Olatz Garde arduradunak; udako kontzertuetako zuzendaria ere bada. Sasoi honetako nobedadea zen jautzilarien lehenengo eta bigarren topaketa izango zirela, eta dantza taldeekin hitz egin zuten zerbait irekia egiteko. Udan zehar kontzertuak egiten saiatuko direla esan dute.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

Oporrez goatzeko eta zaintzeko aholkuak

Bidaiatu behar baduzu, zure helburuak unean uneko egoerara egokitzea gomendatzen dizut. Hona hemen zein ostatu mota hartzen duzun, elikadura zaintzeko hainbat ideia:

Sukaldea duen apartamentu bat hartzeak ez du esan nahi egunero etxean bazkaldu behar duzunik, baina bai partida erdia irabazita izango duzula. Asko kozinatu gabe ere, erosketa egokia eta ia otordurik gehienak modu egokian egiteko aukera izango duzu. Etxetik tuper bat eramatea gomendatzen dizut, janaria prestatuta, egun osoa etxetik kanpo goatzeko aukera izateko. Denbora eta erosotasunaren arteko oreka lortzea da kontua. Zer eros zenezake? Landare kontserbak, entsaladetarako barazki freskoak, izoztuak, prestatuak eta proteina-iturri onak.

Hotel batean bazau, gauza pixka bat gehiago zailtzen da, hotelak berak eskaintzen dizunaren menpe egongo baitzara. Hala ere, lasai egon, ez baitago dena galduta eta.

Hotelean gosaltzeko aukera gazia, ogi txigortu integral bat, arrautza nahasiekin eta tomatearekin; eta gozoa, jogurt naturaleko bowla zereal maluta eta fruta zatiekin.

Saia zaitetz goiz edo arratsalde erdian hamaiketako edo askari bat egiten, otordu nagusietara gose handiegia iristea saihesteko, fruta, fruitu lehorrak, arrautza egosia, txokolate beltza... hartuta.

Kanpoan bazkaltzen edo afaltzen baduzu, sarrerako arinak aukeratzea gomendatzen dizut, eta barazkiak badira, hainbat hobe. Ondoren, proteina, barazki eta karbohidratoak dituen plater printzipal bat hartu, arrautzaztatzeak eta saltsak saihestuta, eta ogi zati osoa hartu beharrik izan gabe. Postreari dagokionez, zure bazkari/afari guztiak jatetxeetan izan behar badira, postrearen orde kafe bat edo txokolatezko ontza bat hartzea gomendatzen dizut, eta noizean behin salbuespenak egin.

Amaitzeko, edaria arazo handia izaten da oporretan gaudenean. Saiatu ura eskatzen, gasarekin edo gabe, alkoholi gabe garagardoak; unearen arabera, infusio bat edo kafe bat, baita deskafeinatua ere. Jakina, salbuespenak egin ditzakezu, baina utzi topa oporretako unerik berezietarako.

"Gorputza eta mugimendua mugara eramane nahi nituen"

SAIOA IRAIZOZ ERVITI DANTZARIA

Dantzertin goi mailako dantza ikasketak egin ondoren, dantzari altsasuarrak La Faktoria zentro koreografikoan profesionalki formatzen jarraitu du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantzaren mundua "oso zaila" dela esan du Saioa Iraizoz Erviti dantzari altsasuarrak. Bilboko Dantzerti arte dramatiko eta dantza goi mailako eskolan dantza ikasketak amaitu ondoren, La Faktorian egon da ikasturte honetan dantzari profesional bezala trebatzen. Laida Aldaz etxarriarrak zuzentzen duen zentro koreografikoan egon den lehenengo sakandarra da Iraizoz. Ekainaren 16an ikasturte amaierako Crunch Time deitutako ikuskizuna egin zuen Baluartean, La Intrusako bi koreografoek landutako pieza. "Dantzari moduan asko gozatu nuen, eta publikoak oso ondo jaso zuen lana, feed back-a oso positiboak izan dira".

Dantza ikasketak egin zenituen, zer moduzko esperientzia izan zen?

Dantzertin lau urte pasa nituen Koreografia eta Interpretazioa deitutako gradua egiten. Lau urte horietan zehar irakasgai asko landu genituen, baina batzuk urtero errepikatzen ziren, esaterako, balleta eta garaikidea. Praktika aldetik horiek ziren, eta teorian historia ia lau urtetan zehar emandako irakasgai garrantzitsuenetarikoa izan zen. Esperientzia ona izan zen, baina egia da akademikoki oinarritutako formakuntza bat denez, azterketak eta lanak egin behar genituen, eta ez zen praktikara bakarrik bideratutako zerbait.



Saioa Iraizoz Erviti dantzaria mugimenduan. UTZITAKOA

Orduan, lau urte oso intentso eta gogorrak izan ziren. Ordu asko pasatzen genituen unibertsitatean eta amaieran, karrera guztietan bezala, GrALa aurkeztu behar genuen. GrAL performatiboa egin nuenez, lan teorikoaz aparte, bakarkako bat aurkeztu nuen. Horretan ibili nintzen azkeneko kurtsoan.

Zeri buruzkoa izan zen zure GrALa?

Natura eta dantza arteko nahasketak bat izatea erabaki nuen. Dantzari izateaz gain mendira joatea gustatzen zait, orduan, planteatu nuen mendiak eskaintzen edo sorrarazten didan horrek nola pasa estudio batera; nola zerbait irekiak edo naturak sorrarazten didan sentimendu, emozio, gorpuzkera hori gela batera, itxia, dantzarietan egin dugun toki horretan sartu. Naturako elementuak ikertzen eta begiratzen egon nintzen, zuhaitzak, hostoak, haizeak eta abar, eta sortzen didaten gorpuzkera edo mugimendua aztertu nuen. Gero estudioan jartzen nintzen mugimendu horiek sortzen nituen, eta sortu nuen pautatutako inprobisaketarako egitura bat. Horrela iritsi nintzen ondorio batzuetara: natura eta estudioa, natura eta artifiziala, biak nahastuz nola sortzen den Saioa dantzari hori. Lan performatiboa Sopelan aurkeztu genuen eta oso pozik gelditu nintzen. Dantzari eta sortzaile izan nintzen argiteria ere sortu behar izan nuelako. Ni ez naiz horretan oso aditua, baina moldatu nintzen. Dantza, mugimendua, musika eta argien munduan sartu nintzen. Ikuskizun guztia egin nuen nire tutorearen laguntzarekin.

Nolakoa zen egun bat Dantzertin?

Normalean goizean klase praktikoa ziren, balleta eta garaikidea tartekatzen ziren astean zehar, eta praktikaren ondoren teoria

"IKASKETEN ESPERIENTZIA ONA IZAN ZEN; INTENTSOAK ETA GOGORRAK ERE BAI"

"NATURA ETA ESTUDIOA NAHASTUZ SAIOA HORI NOLA SORTZEN DEN EZAGUTU NAHI NUEN"

zertorren. Irakasgaiaren arabera ordu gehiago edo gutxiago ziren astean. Normalean praktikoa eta teorikoa izaten zen, eta gero praktikaren jarraitu; inprobisaketa, sorkuntza, errepertorio klasiko edo garaikidea, tailer koreografikoa... Ostiraletan gehienetan praktikoa izaten zen, mugimenduari bideratuta. Lehenengo mailan izan ezik, hautazkoak genituen ere.

Ikasketak amaituta La Faktorian hasi zinen. Zergatik?

Hasieratik nahi nuen dantzaren munduan dantzari moduan murgildu. Baina Dantzertiko gradua aukera ateratzen zenean, titulua lortzeko hori egitea erabaki nuen, baina amaitzean konturatu nintzen teoria zeukanez, dantzari moduan aberastu nintzela, baina teoriak nolabait amets horri pisa kentzen ziola. Orduan, karrera amaitzerakoan erabaki nuen La Faktoria probak egitea. Banekien La Faktorian zela entrenamendua, jo eta ke gorpuzkarekin lanean ez dakit zenbat ordu eta nik nahi nuen nire gorputza muga hori jarri eta dantza edo mugimendua hainbeste lantzea zer den ikustea; egunero ordu pila bat entrenatzen eta dantzatzeko zer den jakin nahi nuen. Dantzari baten bizitza edo pertsona baten bizitzan dantza hainbeste pisu hartzea zer den deskubritu nahi nuen. Gainera, etxetik gertu dago, Iruñean, eta uste dut oso aukera ona dela Nafarroako neska batentzat hemen gertuko formakuntza bat egitea.

Zer da La Faktoria? Nola azalduko zenuke?

La Faktoria bi programa ditu. Bat sorkuntza arlori bideratzen da eta bestea entrenamendura. Nire kasuan entrenamendurako bideratutako programan aritu naiz. Normalean 09:00etan gutxi gorabehera hasten ginen eta egunaren hasieran balleta edo yoga egiten genuen. Hori beti oso zorrotz mantentzen zen; oinarri moduko bat da. Ondoren, eguneko tokatzen zaigun irakasle horrek eskaintzen diguna egiten genuen. Egun osoa, zazpi orduz, gorputza entrenatzen pasatzen dugu. Gorputzaz gain burua ere asko indartzen dugu; kontzentratuta egon behar gara, bestela milaka gauza galtzen ditugu. Psikologikoki eta fisikoki oso exigentea da programa hau. Bi astero irakasle berri bat daukagu eta horrek esan nahi du txipa oso azkar aldatu behar



Saioa Iraizoz Erviti dantzari altsasuarra. UTZITAKOIA

dugula. Irakasle bakoitzarekin oso denbora gutxi gaude. Irakasle horrek irakatsi edo gurekin landu nahi duen hori ematen du, eta ikasturte amaieran pieza bat landu genuen eta kasu horretan bai bost asatez koreografo berdinekin egon ginen. Bestela, bi kurtsotan zehar bi astero irakasle bat izan dugu. Bi aste horiek oso intentsoak dira, eta ematen dute ematen dutenerako. Bestetik, inprobisaketa eta abar ere landu izan dugu. Joseba Yerro dantzari altsasuarra etorri zen, esaterako.

Aberasgarri bezain zaila izango da, ezta?

Irakasle bakoitzak bizitzan zehar bere prozesua eduki du, eta iristen dira puntu batera argi daukaten haien mugimendua edo dantza ulertzeko modua. Orduan, zu bi aste horietan saiatu behar zara berak dantza mugimendu garaikide arloa nola ulertzen duen ikasten; azkenean haiek hori erakusten dizute, haien teknikak eta mugimendua nola lantzen duten. Bi aste horiek amaitzean, astelehenean, beste irakasle bat dator eta agian aurrekoaren guztiz kontrako esaten dizu. Orduan, burua aldatzen oso abila izan behar duzu eta esan behar duzu: ongi, agian aurreko bi asteak ikaragarri gustatu zaizkit eta orain kostatzen ari zait. Baina beti aukera eman behar diozu etortzen den irakas-

le horri oso irekiak izaten direlako; dakiten guztia emateko prest joaten dira, orduan zu ere irekia egon behar zara. Bestela, gelditzen bazara aurreko bi astetan egindakoarekin, gustatu zaizunarekin, ez duzu aurrera egiten. Ulertu behar da dantzaren arloan dauden diziplina eta teknika guztiak ez zaizkigula gus-tatzen, dantza ikasteagatik ez du esan nahi denak gustatzen zaizkidanik. Baina, bai, oso interesgarria da asko ikasten duzulako. Aldi berean, gogorra da txipa oso azkar aldatu behar delako eta mentalki hor egon behar zarelako bi aste horiek gogoz hartzeko eta aurrera jarraitzeko. Oso gorabeheratsua da.

Dantza garaikide asko daude, beraz. Hori da. Dantza garaikidearen munduan teknika desberdin asko

"BI ASTERO IRAKASLE BERRI BAT IZAN DUGU; BAKOITZAK DAKIEN GUZTIA ESKAINTZEN ZIGUN"

"MOMENTUZ PROFESIONAL BEZALA FORMATZEN JARRAITUKO DUT; HASIBERRIA NAIZ"

daude eta mugimendua ulertzeko modu kontaezinak daude. Aurten konturatu naiz nire ustez dantza garaikidea zena utopikoa zela. Azkenean, ezin da definitu. Gauza asko mugitzen dira horren barruan. Ez dakit zenbat irakasle etorri diren La Faktoriara, eta bakoitzak gauza desberdin bat eskaini digu. Gorputza modu batera mugi daitekeela uste duzu eta etortzen da beste pertsona bat eta esaten dizu beste modu batzuk ere badaudela. Milaka teknika eta diziplina daude.

Zuen estiloa garatzeko aukera du-zue?

Ez dakit estiloa, baina niri gertatu zait irakasle batekin zauden bi aste horietan amaitzen duzula dantzatzeko berak eskaintzen duen pauten arabera, orduan, dantzatzeko duzu milaka modu desberdinetara; baina aldi berean denak batera. Orduan, estiloa ez dakit garatzen den, baina bai gorputzak informazio hori gordetzen duela eta baliabide horiek inprobisatzeko orduan ateratzen ditu. Nik sentitzen dut izugarri aldatu naizela ikasturte hasieratik amaierara. Gorputza hainbeste landu dudanez hainbeste modu desberdinetan, orain ditudan baliabideak askoz anitzagoak direla. Ez nuke esango estiloa ikertu dudanik, baizik eta mugitzeko modu desberdin asko. **Dantza irakasle ere bazara.**

Etorkizuna aipatu duzu. Nola ikusten duzu?

Zalantzak agertzen dira; zalantza asko. Dantzaren mundua oso-oso zaila da. Ez dakit zaila, baina konturatu naiz lan eskaintzak oso murrizak direla eta dantzari pila bat garela. Arazo bat dago hor. Datorren ikasturtean La Faktorian egongo naiz. Erabaki hori hartu dut urte honetan dantza konpainietara aurkeztu naizelako, baina ez duelako aurrera egin. Beraz, erabaki dut profesional moduan beste urte bat formatzea. Dantzari profesionalaren esperientzia hasi berri dut; karrera egin nuen, baina ibilbide profesionala aurten hasi dut. Ez dut amore eman nahi hasiberria naizelako. Beraz, La Faktorian geldituko naiz. Irakasle berriak etorriko dira eta aberasgarria izango da, eta dagoeneko egon direnekin oinarria izango dut. Onuragarria izango da. Bitartean dantza konpainiak ikusi eta audizioak egingo ditut. Klaseak ematen jarraituko dut ere. Galdera asko izan ditut buruan: zenbat aportatzen dit dantzak? Noiz arte borroka bat den dantzaren borroka honetan. Etorkizun on baterako irakasle moduan lan egitea aukera oso ona dela iruditzen zait. Baina momentuz dantzari bezala ikasten eta mugimendua ikertzen jarraituko dut, audizioak egiten ditudan bitartean.



La Faktoria Parlamentuan

Maiatzaren 22an Nafarroako Parlamentuko ordezkariak La Faktoria zentro koreografikoa bisitatu zuten, eta dantzarien lana bertatik ezagutzeko aukera izan zuten. Ekainaren 11n Laida Aldaz eta Marta Coronado Hezkuntza Batzordean lan bilkura izan zuten, proiektu pedagogikoa eta nazioarteko ikasleak erakarri ahal izateko dituzten zailtasunak azaltzeko..



Gainontzeko urritzolarren modura, Patxi Catalan Egillorrek herriko festen prestakuntzan parte hartzen du.

"Gehiagorako tarterik ez dugu, eguna betea dago"

Urritzolako festak bertan dira. Gainerako herritarren modura, haiek prestatzen burubelarri aritu da Patxi Catalan Egillor. Catalanek festetako egitaraua egiten du, herritar guztien argazkiekin eta collage teknika erabiliz. Baita gehiago ere

Alfredo Alvaro Igoa URRITZOLA

1 Merezi duen herri batek festak izan behar ditu?

Bai, sikiera egun bat.

2 Zer da festak lanean haste hori?

Larunbateko egun handiaren aurretik lan asko egin behar da. Prestatu behar da taberna, haur eta gazteendako jolasak; karpa jarri behar da... Udalak eszena-

tokia, mahaiak eta aulkiak uzten dizkigu. Lanak despedituta, guztiok elkarrekin umore onean afaltzen dugu. Poteren bat edo beste ere hartzen dugu.

3 Berez, noiz hasten zarete festen prestaketan?

Aurrerapen gutxiarekin: aste bat. Antolatzen duguna errepikatu egiten da, eta gehiagorako tarterik ez dugu, eguna bete-betea

dago. Zorionez, herrian musikari asko daude.

4 Zeinek antolatzen ditu festak?

Lehen, herriko herritarrak beraiek arduratzen ziren. Eta ondoren, etorri garenak batu egin gara. Nik Urritzolan 25 urte daramatzat. Aurten herrira bizitzera etorri den jende berria ere parte hartzen ari da festen antolaketan. Beraz, askoz ere

laguntza handiagoa dugu. Festak prestatzeko eta aurreko urtekoa ahal bada hobetzeko bilerak egiten ditugu. Guztion artean egiten dugu, ezer ez ahazteko. Egun bakarra da eta herrian ez dago zerbitzu bat bera ere. Horregatik, dena eskura izan behar dugu, gero batera edo bestera erostera joan behar ez izateko. Ni herrian bizi naizenetik festak ez dira asko aldatu.

5 Zein da zure egitekoa antolaketan?

Besteen moduan, elkarlanean aritzen naiz. Denon artean antolatzen dugu guztia. Bakoitzak arduraren bat hartzen du: edaria, haragia... denon artean.

6 Beti egun bakarrek festak izan dira?

Bai, egun bakarra. Orain data finkoa jarri dugu, zeren lehen aldatzen ibiltzen ginen jendearen oporren arabera. Horregatik erabaki genuen garagartzaroko azken asteburuan ospatuko genituela festak. Hala jendeak badaki noiz diren festak. Egitaraua bete-betea dago. Jarduera baten ondoren, bestea dator.

7 Jendea etortzeko prest dago?

Bai, bai. Batez ere lagunak eta senideak etortzen dira. Etxekoen festa dela esan daiteke. Hamasei biztanleko herri batendako 95 elkartzea herri bazkarian, edo joan zen urtean 120, arrakasta da. Eskerrak duela urte batzuk karpa handi bat erosi genuela. Handenak lasai asko sartzen gara. Karpa plazan jartzen dugu, luzetara, iturriaren ondoan. Han jarduera guztiak egiten ditugu. Beharbada gauean herrietatik etorritako galdutakoren bat agertzen da.

8 Zer moduzko festak dira Urritzolakoak?

Oso onak. Aspertzeko betarik ez dugu. Gaitariak 11:00etan hasten direnetik, otamena prestatu beharra dago. Ondoren, herri jolasak eta Galtzagorri Txaranga izaten dira. Etxajua eta herri bazkaria. Arratsaldean mahai jokoen txapelketak, haur jolasak, kontzertuak, ogitarteko afaria, bingoa, zezensuzkoa, su artifizialak eta disko musika izaten dira.

9 Eguna luze edo motz egiten da?

Ni batzuetan bukatzeko desiotan egoten naiz, behingoz guztiaz pixka bat ahazteko. Baina, tira, gustura egonez gero berehala pasatzen da.

10 Eta igandean?

Bakarrik urritzolarrendako den herri bazkaria egiten dugu. Guk prestatutako paella jana izaten da. Eta bazkaldu ondoren, 17:00ak aldera, karpa biltzen hasten gara, heldu den urtera arte.

11 Urtean festa egun bakarrek nahikoa da?

Garilan arpa ikasteko gazteendako bost eguneko udako ikastaroa egin zen herrian, eta bukatzeko kontzertua eman zuten elizan. Bete egin zen. Santa Luzian, abenduaren 13aren inguruan, beti jardueraren bat egin izan dugu. Oker ez banago, Lekunberrin bazkaldu genuen herriko nahi izan genuen guztiok joan zen urtean. Edo Gaztelu mendia igo eta jaitsi ondoren elkartean bazkaldu. Albalara ere joan ginen urte batean, eta gero inguru hartan bazkaldu genuen. Badaude jarduerak.



gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Eraldatu zure irudia

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Aitsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe